

QEU

2,40 €

2009ko ekaina


196

**ARABA
EUSKARAZ
2009**

**OION
EKAINAREN
21ean**




oion
araba euskaraz 2009
hauspoari eraginez



DIOCESANAS

EDUCACION SECUNDARIA Y FORMACION PROFESIONAL
BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA

www.diocesanass.org

L.Hko Heziketa Zikloak
Euskal Herriko eskaintza
handiena

Kalitateko **Goi mailako**
Lanbide Heziketa,
aukera bikainekin eta
unibertsitaterako
sarrerarekin



Bide zuzenena marratzu etorkizun hoberantz

Deredutan eskaintzen diren Zikloak


Erdi Mailako L.H.Ko Heziketa Zikloak

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa

Goi Mailako L.H.Ko Heziketa Zikloa

- Administrazio eta Finantzak

ARRIAGA • MOLINUEVO • NIEVES CANO • MENDIZORROTZA
945 010 110 945 010 120 945 010 130 945 010 140



geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

sumarioa 196

geugaia

radio vitoriak 75 7-11

euskara&historia I

gasteizko toponimia I eta II.

elena mtz de madina 13-17

euskaltasunean

virginia boloix 18-19

batbitan

arf09. lekukotzak 20-21

batbitan

torturari stop 22-23

bat4tan

bi aldiz jaiotzeaz

[patxi zubizarretaren gizarte gaien sortako III.a] . . . 24-27

arte txokoa 30-33

krea, sorkuntzarako laborategia 30-33

euskara&historia II

datu gehixeago euskararen historiarako araban

(pedro uribarrena & roberto glz de viñaspre) 34-35

beste:


agenda, kaletik, geusex, araba bixotzian, historia eta idazleen zutabeak, errezeta eta umorea



GEU

GEU aldizkaria | sorrera-data: 1992 | helbidea: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | kazetariak: edurne begiristain, ainhua arriaga, naroa cuesta eta ane pedruzo | azala: araba euskaraz 09 | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | araba bixotzian: josean morlesin | kolaboratzaileak ale honetan: patxi zubizarreta, kike fdz de pinedo, idoia breñas, pedro uribarrena & roberto glz de viñaspre, oskar espinosa, erlantz urtasun, miren lpz de arregi (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesanas-mendizorrotzakako ostalaritza eskola). | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



www.geugasteiz.com



GEUREKIN MENDIRA

EKAINAK 21 IGANDEA

TOLOÑO MENDIA (1263M)
ARRATSALDE ERDIRA ARTE
LOVAINA PLAZATIK / KOTXEZ
ORDUA: 9:00
ARDURADUNA: XABI A. (688605644)
(ARABA EUSKARAZ OIONEN, AUKERA EDERRA
ARRATSALDEAN JOATEKO)
GEUREKINMENDIRA@GMAIL.COM



KULTUR ERROTA

EKAINAK 16 ASTEARTEA

PAM. PUTOA MOAK MATEMATIKETAN
KONTZERTUAN
20:30 PARRAL TABERNAN

IRAKURLE KLUBA

EKAINAK 24 OSTEGUNAREKIN

JOANJO OLASAGARRE, T., ALBERDANIA 2008
HIKA-ATENEAN, PINTORE KALEA 13, 20:00
KONTAKTUA: IBAN.ZALDUA@EHU.ES

WWW.GEUGASTEIZ.COM

GEUELKARTEA@GRN.ES / 945222153

MINTZA EGUNA

MINGAINAK DANTZAN

EKAINAK 6 11 ETATIK AUERRERA (EGUN OSOZ) GASTEIZ

HAMAIKETAKOA, IBILALDIA, KALEJIRA,
BAZKARIA, ERROMERIA...
MINTZALAGUNA@GEUGASTEIZ.ORG
HTTP://WWW.MINTZAPRAKTIKA.ORG/B
LOGOSFERA/BLOGAK/INDEX.PHP?BLOG=14

ARABA EUSKARAZ

HAUSPOARI ERAGINEZ

EKAINAK 21 OION

WWW.ARABAEUSKARAZ.NET



AGIAN. ZAHARREGIA, TXIKIEGIA

MIKEL VALVERDEREN ERAKUSKETA
MAIATZAK 20-EKAINAK 20 ARTXIBO FORALEAN

ARKAITZ BASTERRAREN DOKUMENTALAREN
AURKEZPENA
EKAINAK 4 19:00 ARTXIBO FORALEKO ARETOAN

BINGEN MENDIZABAL, RAFA RUEDA,
MIKEL URDANGARIN, KIRMEN URIBE &
MIKEL VALVERDE ZUZENEAN

EKAINAK 5 20:00 AMARIKA ARETOAN
AMARIKA PROIEKTUA
INFO@AMARIKA.ORG



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

ABTXIKI 09

ARABAKO ESKOLARTEKO BERTSOLARI
TXAPELKETAKO FINALA



EKAINAK 6, 9:00 ARMENTIA IKASTOLAN
ETA BERTSOA IPUIN BIHURTU ZEN
EKAINAK 18 20:00 FLORIDAKO KULTUR ETXEAN

ANGEL MARI PEÑAGARIKANO, OIHANE PEREA,
SEBASTIAN LIZASO ETA ANDONI EGAÑA
GAI-JARTZAILEA: PABLO PAGEGI

MENDIALDEKO ERREBANTXA

UZTAILAK 4, BAZKAL OSTEAN,

KANPEZUN

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO
FINALISTEkin

IOAR DANTZA-TALDEAREN URTEURRENAREN
JAIAREN BARRUAN

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

945010505 675707971

ARABA@BERTSOZALE.COM

WWW.BERTSOZALE.COM

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAN EUSKARA SUSTATZEN


FORMAZIO IKASTAROA

EKAINAK 26, 29, 30 9:30-13:30

AMAIA ZENTROAN

IZEN-EMATE EPEA: EKAINAK 22

EUSKHARA@EUSKALNET.NET 945288275



EUSKHARAN KULTUR ELKARTEA

ASTE KULTURALA

TXIKIENTZAKO EUSKARAZKO ZINEMA,
TAILERRAK ETA JOLASAK

EKAINAK 22-26 11:00-13:30

UDALEKUAK

EKAINAK 29, 30 ETA UZTAILAK 1, 2 ETA 3
MINTZA PRAKTIKA FRESKOA UDAN
UZTAIL ETA IRAIL OSOAN ASTEARTE ETA
OSTEGUNETAN 19:00-20:30

IZENA EMATEKO: ASTELEHENETIK OSTIRALERA
15:30-21:30 AMAIA ZENTROA (BENITO PEREZ
GALDOS PZ)

945288275 /

EUSKHARAN78@EUSKALNET.NET

CARUSO 1. BERTSO SARIKETA

MAIATZAK 27 EKAINAK 3

- SERAPIO LOPEZ, ANDERE ARRIOLABENGOA,
IÑAKI VIÑASPRE, JULEN ZULAIKA
GAI-JARTZAILEA: FELIPE Z.

- ASIER OTAMENDI, ASIER IRIONDO, JOSEBA
BARANDIARAN ETA MAIALEN ARZALLUS
GAI-JARTZAILEA: JUARISTI

EKAINAK 10 EKAINAK 17

- JUAN MARI JUARISTI, IÑIGO EIZAGIRRE,
ANDER SOLOZABAL, FELIPE ZELAIETA

GAI-JARTZAILEA: BEITTO
- RIKARDO G. DURANA, HODEI IRURETAGOENA,
MIREN AMURIZ, BEITTO MARTINEZ
GAI-JARTZAILEA: ASIER O.

EKAINAK 24 UZTAILAK 1

- ELORRI BELTZA TALDEAREN AURKEZPENA
- FINALA

ASTEAZKENETAN, 21:00 CAFÉ CARUSON

(E. EGUREN, 9 GASTEIZ)

SARRERA: EURO 1/ERRESERBAK: 945248699

KULTUR ETXEA

FERMIN MUGURUZAREN KONTZERTUA

EKAINAK 9 16:00

ANTOLATZ.: ARDATZ KULTUR ELKARTEA (IKA)

BERTSO-SAIOA

EKAINAK 18 20:00

ANTOLATZ.: ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA
& AFA-REN EUSKARA, KULTURA ETA KIROL
SAILA

WWW.ALAVA.NET

KALDEARTE 2009

SAIOA BERANTIARRA: MARKELIÑE TERAPIA?

EKAINAK 13 LARUNBATA 00:00ETAN

PLAZA BERRIAN

WWW.VITORIA-GASTEIZ.ORG

FOTO ARTE 2009 ARGAZKI LEHIAKETA (V.)

LANAK ENTREGATZEKO EPEA: EKAINAK 1-30

GAIA: ARTEA, EDOZEIN ADIERAZPEN MODUTAN
ALDABE, PILAR, HEGOALDE, IPARRALDE,
JUDIMENDI EDO LAKUAKO G.E-ETAN
LEHEN SARIA: 1.000 EURO

WWW.VITORIA-GASTEIZ.ORG

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

MONTEHERMOSO. TAILERRAK (UMEAK & GAZTEAK)

CMK TALDEA

LARUNBATERO 11:00-12:30
DOAN, ALDEZ AURREKO IZEN-EMATEA
8-13 URTE BITARTEKOENTZAT

TXIKIART

LARUNBATERO 18:00

DOAN, ALDEZ AURREKO IZEN-EMATEA
4-8 URTE BITARTEKOENTZAT (HELDU BATEK
LAGUNDUTA)

WWW.MONTEHERMOSO.NET

MATINÉ

LUZEMETRAIAK EUSKARAZ (PUBLIKO
GUZTIENTZAKO ZINEMA)

IGANDERO 11:00

FOFITA ITXAS TXAKURRA. **EKAINAK 7**
ASTERIX JOKU OLINPIKOTAN. **EKAINAK 14**
LAGUNDU! ARRAINA NAIZ. **EKAINAK 21**
AHATETXO ITSUSIA ETA BLOK. **EKAINAK 28**
WWW.MONTEHERMOSO.NET

X. HIK HASI UDAKO TOPAKETAK

EUSKARAREN ERABILERA
SUSTATZEN HEZKUNTZAN

UZTAILAK 1, 2, 3 9:00-14:00

DONOSTIAKO FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEAN ETA EKINTZA
IKASTOLAN

INFO + & IZEN-EMATEA:

WWW.HIKHASI.COM

UDAKO IKASTARO OSAGARRIAK

ASTIALDI ETA SUSPERTZE
SOZIOKULTURALEKO IKASTAROAK

- MALABARE TEKNIKAK

EKAINAK 2, 9, 16, 23

- HEZIKETA BEREZIA

EKAINAK 12 ETA 13

-UDAKO JARDUERETAN LANTZEKO TEKNIKAK

EKAINAK 4, 11, 18 ETA 25

IZEN-EMATEA: IKASTAROA HASI BAINO
ASTEBETE LEHENAGO BIZKAIKO
URTXINTXA ESKOLAKO BULEGOAN

(ZABALBIDE 26 BEHEA, 48006 BILBO) EDO

WWW.URTXINTXAESKOLA.ORG

ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?

EKAINAK 22, 23, 24 DONOSTIAKO

MIRAMAR JAUREGIAN

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK

ANTOLATUTAKO IKASTAROA

EHU UDA IKASTAROEEN BARRUAN

HTTP://WWW.SOZIOLINGUISTIKA.ORG/

EHUIKASTAROA

37. UDAKO IKASTAROAK

EPEA: EKAINAK 19 ARTE

(IKASTAROA HASI BAINO ASTEBETE
LEHENAGO ARTE MATRIKULAK ONARTUKO
DIRA)

IKASTAROAK@UEU.ORG / 943821426 (EIBAR)

WWW.UEU.ORG



UDALEKUAK 09

URBASAN, 7 LURRALDEAK, 7 EGUNEZ
ASTEBETEKO EGONALDIK UZTAILEAN

KULTURA, LAGUNAK, JOLASA, NATURA,
IRTEERAK, SORMENA, HIZKUNTZA,
HEZKUNTZA, KIROLAK, ABENTURA

INFO: +34 943670249 /

URBASANBAGARA@UDALBIDE.NET

WWW.UDALBIDE.NET/URBASANBAGA
RA

NATUR ESKOLAK

EUSKARAZ HITZ EGITEKO, INGURUMENAREN
ALDEKO SENTSIBILIZAZIOA INDARTZEKO,
NATURA MAITATZEKO, EUSKAL KULTURA
EZAGUTZEKO, LURRALDE EZBERDINETAKO
GAZTEEN ARTEKO TOPAKETA IZATEKO

LH5, LH6, DBH1 ETA DBH2KO IKASLEENTZAT
URRIA, AZAROA, APIRILA, MAIATZA ETA
EKAINA

HIRU EGUNEKO EGONALDIA: 55 EURO

+34 943670249 /

URBASANBAGARA@UDALBIDE.NET

DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA: KARTEL LEHIAKETA

AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA:

UZTAILAREN 1A BAINO LEHEN

GEREDIAGA ELKARTEKO EGOITZAN

(LARRASOLOETA, 3 - 48200 DURANGO)

SARIA: 1.300 EURO

KARTELAREN EZALGARRIAK:

-FORMATUA: JPG, TIFF EDO PDF

-ERRRESOLUZIOA: 300 PPP

-NEURRIAK: 70 X 50 (EZ ETZANA)

WWW.GREDIAGA.COM /

WWW.DURANGOKOAZOKA.COM

GORRENTZAKO ANTZERKIA ETA DANTZA EUSKARAZ

EKAINAK 5 21:30 JIMMY JAZZ ESZENAN

-DRÁCULA

(ARABAKO GORRAK ELKARTEA 945-

286948

ARABAKOGORRAK@TELEFONICA.NET)

+

-TIC-TAC, SENTITU, ENTZUN (ASPA SOR)

DOAN

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM



EH-KO HITZ GEZIDUNEN I. TXAPELKETA

EKAINAK 27, IRUNEN

BIKOTEAK BEHAR DIRA

ANTOLATZ.: LUMA HITZ JOKOEN ALDIZKARIA

LUMA@XEDERA.COM /

XEDERA@XEDERA.COM /

WWW.XEDERA.COM

LITERATURIA, EUSKARAZKO LITERATURAREN ASTEBURUA

EKAINAK 5, 6 ETA 7 LARRABETZUN

WWW.LITERATURAESKOLA.ORG

IX. JUAN SAN MARTIN IKERKETA BEKA

EPEA: IRAILAK 1-URRIAK 11

IKERKETA ESPARRUA: ARTEA / 9.000 EURO

WWW.EIBAR.NET

HIZNET. HIZKUNTZA PLANGINTZA GRADUONDOKOA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO

BEREZO TITULUA. HPS-REN

BERMEAREKIN

IKASTURTE BATEKO IRAUPENA

IZEN-EMATEA: URRIAREN 22RA ARTE

(PLAZA MUGATUAK)

PREZIOA: 1.401,20 EURO

EUSKO IKASKUNTZAREN ASMOZ FUNDAZIOA

(JOSE ELOSEGI ALKATEAREN HIRIBIDEA 275,
20015 DONOSTIA)

943326398/HIZNET@ASMOZ.ORG

HTTP://HIZNET.ASMOZ.ORG

KANGEUROAK

UMEAK ZAJNTEKO PREST BAZAUDE
EMAN ZURE IZENA ZERRENDA HONETAN
ETA ZERBITZU HAU BEHAR DUTENAK
JARRIKO DIRA ZUREKIN ZUZENEAN
HARREMANETAN. HORRETAGAKO, BIDALI
GEU@GEUGASTEIZ.COM HELBIDERA ZURE
IZENA, TELEFONOA ETA ORDUTEGIA
(GOIZEZ/ARRATSALDEZ/GAUJEZ/EGUN
OSOZ/ASTEBURUAK).

>UNAI GARMENDIA MAEZTU

695 705 621 /

GARMEN_92@HOTMAIL.COM

UMEZALEA, ARDURATSUA, EUSKALDUN

PETO-PETOA, 17 URTEKOA. OHITUTA UME

TXIKIAK ZAJNTZEN.

SARRIA EDO GASTEIZ ALDEAN LAN

EGITEKO PREST.

GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

1 GUNEA: SAN BIZENTE IKASTOLA

Babeslea: Eitb. Café Baqué

ORDUKA

- 10:00 ZIRKUITU IREKIERA
- 11:00 IRULE DANTZA TALDEA
- 13:00 BETIZU DISKO FESTA
- 14:00 HERRI BAZKARIA
- 14:00 BERTSOLARIAK
- 16:30 PIRITX, PORROTX ETA MARIOMOTOTS: "PIRATAK"
- 18:00 O IONGO ABESBATZA

EGUN GUZTIAN ZEHAH

- HAUR JOLASAK
- PUZGARRIAK
- TAILERRAK
- DENDA

2.GUNEA: PISZINAK

Babeslea: Euskaltel, Eusko Label Kalitatea. Abra, Naturgas energia

ORDUKA

- 10:30 ARABAKO HERRIEN ARTEKO PILOTA TXAPELKETAREN FINALA
- 11:00 BERTSO RAP
- 13:00 ETS
- 14:00 BESTERIK GABE
- 15:30 SEIREN
- 17:00 AMAIUR

EGUN GUZTIAN ZEHAH

- GLOBO AEROSTATIKOAK
- TAILERRAK
- PUZGARRIAK
- ESKI PISTA (SIMULADOREA) ROKODROMO
- DENDA

3.GUNEA: PARKEA

Babeslea: Eroski Fundazioa, Vital Kutxa, Kaiku

EGUN GUZTIAN ZEHAH

- HAUR JOLASAK
- PUZGARRIAK
- LUDOTEKA
- YUNPIAK
- KALE ANIMAZIOA
- HERRI KIROLAK
- ARTISAUAK
- DENDA

4.GUNEA: HAUSPOA

Babeslea: Mahou, Coca Cola.

ORDUKA

- 10:30 TERCERA LLAVE
- 11:30 OHIU
- 12:30 DEABRUAK TEILATUAN
- 14:00 MALKO
- 15:00 HIPERAKUSIA.
- 16:00 EZINEAN
- 18:00 KAUTA

EGUN GUZTIAN ZEHAH

- GRAFITIAK
- BLUETOOTH GUNEA

ZIRKUITOAN

- TXISTULARIAK (IRULE)
- BATUKADA
- GAITEROAK
- TRIKITILARIAK
- LANTZIEGOKO GAITEROAK
- TXARANGAK



hauspoari eraginez

begiraleak behar ditugu

GUSTUKO DUZU KIROL EN BAT? KULTUR JARDUERARIK? DAGOEN EKO BEGIRALE ZABILTZA? KIROL EDO ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN BEGIRALE JARDUN NAHI DUZU?

Euskalduna bazara, 17 urtetik gora baduzu eta kirol begiralea edo eskolaz kanpoko ekintzaren batean aritzeko ezagupenik baduzu, sartu zure kurrikulua webgunean.

Baina zertarako? Bada, Arabako eta Gasteizko ikastola eta eskoletan zailtasunak dituzte begiraleak topatzeko ikasturtearen hasieran, horrexegatik begirale-zerrenda martxan jarriko da ekainetik aurrera. Zerrenda horren bidez lortu nahi dugu harremanetan jartzea eskolaz eta begiraleak eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza asetzeko irailetik aurrera. Proiektu hau hasi gara jorratzen hainbat eragile, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren laguntzaz. Animatu eta sartu zure datuak!

izena eman
www. aisetu.org

Informazioa: Geu Gasteiz ☎ 945 222 153

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



RADIO VITORIA-K 75

MEMORIA KOLEKTIBOAREN ADIERAZLE ETA GORDAILU



1934KO IRAILAREN 29A, ARRATSALDEKO 6AK. ASKORENTZAT HONAKOA DATA SOIL BAT BAINO EZ DA IZANGO. ARABAR ASKORENTZAT ORDEA, DATA HISTORIKOA DA, IZAN ERE, MEMENTO ZEHATZ HARTAN RADIO VITORIAKO LEHENENGO HOTSAK UHINETAN ZEHAR BARREIATU ZIREN. ORDUTIK, 75 URTE IGARO DIRA.

t. ane pedruzo & naroa cuesta

a. edorta sanz

Ikatz mikrofonoetatik haririk gabekotara

Polita litzateke Francisco Peña Hernandez doktoarekin solasalditxo bat mantendu ahal izatea, duela 75 urte abian jarri zuen proiektu hura gaur egun zertan datzan ikusi eta bere iritzia eman zezan...

Lehenengo hazia

Peñak irrati-telefonía gustuko zuen eta zaletasun horrek bultzaturik Arabako lehen irrati sortu zuen, Radio Vitoria. Dagoeneko desagertu den Nuevo teatro zelakoa izan zen lehen emisioaren lekuko eta Mariano San Miguelen *Celedón* kaleji-





Es lo que hay

Araba gaur

ra ezagunak girotu zuen efemeridea. Doinu egokia dirudienez, izan ere, hurrengo berrogeita hamar urteetan zehar hura irratiko sin-tonia nagusia izan zen.

Abentura hasia zegoen...

Egoitzaz egoitza, jabez jabe

Radio Vitoria-ren historia Prudencio Maria Berastegi kaleko estudioetan hasi zen idaz-ten. Bertan, Arabako orduko kazetari eta tek-nikariak kultura, kirola, nekazaritza edo hau-rrer inguruko programazioa eskaintzen hasi ziren, besteak beste.

1947. urtean Gasteizko Aurrezki Kutxak irratia erosi eta kalitatearen mesedetan, hiru urteren buruan estudioak Olagibel kalera lekualdatuak izan ziren. Hauek aski ederrak omen ziren, izan ere, "bonboi-kaxa" izenez ezagutuak baitziren. Dena den, hobekuntzak ez ziren soilik estetikoak izan, garai hartan ospe handiko programak jaiotzen hasi ziren-eta.

Horien artean *Gasteiz* izeneko saioak aipu berezia merezi du, izan ere, bertan Arabako gertakari herrikoienei heltzen zitzairen, *Gasteiztar zahar baten kondairak* edo *Miñoi potoloaren istorioak* bezalako tarteak eskai-niz. Honez gain, ezin ahaztu, gaur egun ere airean jarraitzen duen *Club de amigos* saio mitikoaren aitzindaria, *De oyente a oyente*, zeina irratiko bazkideek elkar agurtzeko xedez abiatu zen.

1954. urtean, Radio Vitoria SER katearekin elkarlanean hasi zen, horrek programazioa-ren aberastasuna ekarri zuen, baita emi-sioen ordutegiaren luzapena ere.

Denborak aurrera egin ahala, irratia-ren beharrak gizartearekin batera eraldatzen zihoazen eta horrek Posta pasabidean koka-razi zuen Radio Vitoriako egoitza berria 1980an.

Eta nik... txoria nuen maite...!

Handik bi urtera, lehen urratsak ematen hasia zen Euskal Irrati Telebista egitasmoa-kin, EITBrekin, bat egin zuen Radio Vitoriak. Roberto Oñederra produkzio burua garai har-tan heldu zen irratira. Iruñean lan egitetik zetorren eta aitortu digunez, Radio Vitoriak "lurrez eta jendez aberatsa den Euskal Herriko zazpigarren alaba ezagutzeko aukera zoragarria" eskaini zion. "EITBren kontua berria zen eta txoriak zer eta nola kantatuko zuen ezezaguna zenez, Gasteizen kezka zeukaten arrotzok euren lekuak eta postuak kenduko ote genizkien", dio.

Ondoren etorritako urteak oparotasunez beterikoak izan ziren, zeintzuetan Radio Vitoria Arabako jaietan bete-betean murgil-tzen hasi zen. Horrela, San Prudentzioko maratona, Andre Maria zuriaren jaiak, Olarizu eguna, herrietako jaiak... uhinetako protago-nista izaten hasi ziren. Jaia non, Radio Vitoriako unitate ibiltaria han, dena konta-tzeko prest!

1984. urtean Jose Ramon Diez Unzueta irratiko zuzendari izendatua izan zen eta ordutik berari egokitu zaio uhinen norabide egokiaren gidaritza. Berak uztartu zituen Radio Vitoria S.A. eta Eusko Irratia S.A., SER katetik behin betiko bereiziz. Geroztik, pro-gramak ugarituz eta eraldatuz joan dira eta kazetari eta teknikari andanak osotu du Radio Vitoriako mamia. Ia denetarik egin dute urtetan irratian lanean dabilzan esata-riek. Paco Valderramak esaterako, kiroletan izan ezik, genero guztietan aritu dela azaldu digu. "Noizbait imajinatu izan dugu zer-nolakoa izango nintzen ni zuzeneko partidu bat ematen, kontuan harturik baloi bat zer den ere ez dakidala... Seguruenik ikusle eta entzuleek ogitarteko zaparrada batekin zigor-tuko ninduketen..." gaineratu du.

Eguna abiapuntu, baina... bihar zer?

Gaur egun, Arabako unibertsitate kanpuse-ko ikasle eta irakasleak ditu auzokide Radio Vitoriak, Domingo Martinez de Aragon kale-ko estudio digitalizatuak baititu egoitza. 24 orduz airean, etorkizunera begira dago Radio Vitoria, gutxienez beste 75 urte betetzeko asmoz. Rakel Navarro, Aratz Goikoetxea eta Oihane Domaika kazetari gazteek diotenez, esatari eta programazioaren berriztapenean datza irratia-ren etorkizuneko arrakasta. "Haize freskoa sartzea ezinbestekoa da, leiho guztiak ireki, kortse zaharrak alde batera utzi eta beldurrik gabe arriskatu behar da, betiere Radio Vitoriaren berezko erroa mantenduz, hurbiltasuna eta atsegintasuna alegia" dio



El Madrugador



Araba bizirik

Navarro. "Eraberritu edo hil", Domaikaren hitzek modernizazioaren aldeko apustu argia azaltzen dute.

Igarotakoa gogoan eta etorri beharrekoei aurre egiteko prest, Radio Vitoriak gaurkotatunari heltzen dio egunero entzuleriaren konfiantza bereganatuz.

Etenik gabeko sintonia

Zergatik entzuten da Radio Vitoria? Ongi dakite bertan lanean diharduten berrogei bat kazetarik. "Irrati honen xarma belaunaldiz belaunaldi entzuleriaren nahietara egokitu izana da", nabarmentzen du Gema Espinosa

kazetariak. "Denontzat tarte dago", gaineratzen du Alejandra Eguiluzek, "euren auzoan eta munduaren beste puntan gertatutakoaz informatuta dago entzuleria, lokaletik globalera". "Literalki euren sukaldeetan sartu gara, eta ezin hobeki hartu gaituzte", Txaro Idokilis, Plaza Nuevako kidea, irratia hurbiltasunaz mintzo da. Hamaika saiok osatu izan dute RVko programazioa. Inoiz ahaztuko ez diren ahotsak etxe, kotxe eta lantegietaraino garraiatuak izan dira eta mementuko protagonistak hauexek dira.

El Madrugador: irribarrea ahoan, oheari agur

Milaka arabarren iratzargailuek ahaztu dute jada "ring-ring" soinu gaitzesgarria.

Izan ere, *El Madrugador* saioko aurkezle diren Ivan Pascual eta Miguel Ascenzoren ahotsek ordezkatu dute. 2007ko udan bi kazetari gazteek agindu bat betetzeari ekin zioten: egunero goizeko seietan hasi beharko zuen saioa asmatzea, prestatzea eta aurkeztea. Buru-belarri lanean hasi eta kafe, bekar eta begi-zulo askoren ostean *El Madrugador* saioa sortu zuten, Radio Vitoriako goiztiarre-na. "Hurrengo bost minututan gerta daitekeena ezin jakin dezakegu, baina behin norbaitek esan zigun irratia sorpresa behar zuela izan", eranstean dute kazetariak. Bi urte igarota "goiz jaikitzen jarraitzea" dute erronka. Asteburuetan Ivan Alonsok hartzen du testigua. "Nik ez ditut kafe-makinak oparitzen, ezta jogurt-ontziak ere... *El Madrugador* saioaren kafeinagabeko bertsioa prestatzen dut...

EAJ 62tik 104.1 FMra

Teknika arloan Radio Vitoria aitzindari izan da Araban. Berrehun watteko potentzia zuen "EAJ 62" indikatiboa egokitu zitzaionean, orain 75 urte. Era berean, FM-n emititu zuen Gasteizko lehen irratia dugu RV. Orobat, digitalizazio prozesuan ere bide-erakusle izan da Euskal Herrian. "Azken hogeita bost urteetan irratia historiaurretik etorkizunera pasa da teknikaren alorrean", aipatzen du Xabier Matxain antena-buruak. "Magnetofoiak, kaseteak, biniloak... elementu hauek guztiak desagertu dira dagoeneko; orain dena da ordenagailua". Edozein modernizazio prozesutan lez, aldaketek erronka berriak dakartzate. "Lehen bagenekien zer egin arazoen aurrean... nola edo hala, emisioa ateratzeko gai ginen; orain batzuetan ez dakigu zer egin... itzali eta piztu, besterik ez", gogoratzen du Matxainek. Buruhaustek ugariak izan badira ere, Iñaki Perrino teknikarien arduradunaren ustez, Radio Vitorian ez dira arazoak existitzen, zailtasunak baizik. "Teknika eta giza erronka etengabea da irratia, Zeledonen jaitsiera hegazkin txiki batetik eman dugu, eta saio oso bat tranbiatik emititzea da hurrengo desafioa", aurreratu digu Perrinok.

Buenos días Araba, egunon Vitoria

Araba Bizirik saioak informazioarekin du hitzordua goizeko zortziak laurden gutxitan. Gaurkotasuna, elkarrizketa, iritzia, iruzkina, Araba osoan zehar sakabanatutako korrespontsalak... Osagai hauek guztiak gatzaz eta piperraz ontzen ditu Juanjo Martinez Viñasprek *El txoko de anemias* sukaldaritza tartean. Kafea eskuan, Ismael Diaz de Mendibilek gidatzen du goizeko albistegia. Goizero arabarrei Araban gertatzen denaren berri ematea du Diaz de Mendibilek egunero-ko erronka.



Primer tiempo

Euskara uhinen lagun

Radio Vitoriako programazio gehiena gazteleraz da. Euskarak *Gure musika* eta *Eusko Ikaskuntza* saioetan bereganatzen du protagonismoa gaur egun. Jose Ramon Diez Unzueta Radio Vitoriako zuzendariak dioenez, "saio hauek gure hizkuntzaren aldeko apustua dira, euskaldunon hizkuntza berreskuratzearen alde borrokatzen dagoen lurralde batean".

75 urte hauetan zehar euskara oinarri izan duten programen artean, 1964an jaio eta 28 urtez antenan egon zen *Euskal Jaia* saioa dago. Bertan, Jose Maria Sedanok Euskal Herriko musika talde eta kantariei egiten zien leku. Garaiko tes-tuinguruan, frankismoaren menpeko euskal gizartean, gaizki ikusitako ekime-na zen hura, eta askotan, Sedano klan-destinoki zihoan mugaren bestaldera diskoak eskuratzeko. Honez gain, entzu-leak euskalduntzeko xedez, euskarazko klaseak ere emititu izan ditu Radio Vitoria-k.

1985. urtean, haurrentzako irratsaio euskaldunen artean klasiko bat izatera heldutako *Maritxu berritsu* sortu zuen Jeni Prieto kazetariak, zeinak maitekiro gogoratzen duen "nagusiek ere gustu-koa zuten euskara errazeko" programa hura. "Euskara eskoletan hasi berria zen eta haurrei irratia eskaini genien solaski-de jostari", dio. Berreskuratu daitekeela pentsatzen du Prietok eta... zergatik ez?

Plaza Nueva, Gasteizko bihotzetik zuzen

RVko goizetako magazina da *Plaza Nueva*. Gasteiz eta Arabako errealitate sozia-la, kulturala eta, batik bat, gizatiarra egunez egun hurbiltzen saiatzen den programa da. Datu zehatzen gainerik, solasaldiaz goza-tzea eta pertsona anonimoen esperientziaz ikastea bilatzen du Pilar Ruiz de Larrea edito-reak. "Oinak lurrean izanda entzulearen kon-plizitatea bilatzen dugu". Gastronomía, zientzia, musika, literatura, moda, historia... asko eta oso bestelakoak dira *Plaza Nueva*k jorratzen dituen gaiak. Gainera, saio honek unitate ibiltaria du lagun, zeina Arabako bazter guztiak miatzen dituen errealitatea berehalakotasunez hurbiltzeko.

Club de amigos, solasaldi lagunkoia

Radio Vitoriako saiorik beterranoena dugu *Club de amigos*; berrogei urte luze dira lehe-nengo emisiotik. Orduan Judith Coboren ahotsa zuten entzuleek erreferentzia. Horietako batzuk ohiko partaide bihurtu ziren, hala nola, Reyes, Cosme eta Antonio, jotak abesten zituzten poeta amateurak. Egun, Elixabete Legardak zuzentzen du entzuleen arteko harremanetan oinarritzen den tarte hau. Abesti dedikatuen formatu klasikoak ezeztatu barik freskotasanaren lurri-na gehitu dio Legardak. "Saio honek ez du mugarik eta gure erronka argia da: beste berrogei urte bete ditzala", diosku.

Araba Gaur, albiste hurbilenen bilduma

Albistearen bila irteten da goizero *Araba Gaur* osatzen duen kazetari taldea Edurne Trascastoren gidaritzapean. "Instituzioetan sortzen diren albisteak jasotzeaz gain auzo-kide, sindikatu, elkarte eta kolektiboen aho-tsek dute lekua; informazio gaurkotu eta era-bilgarria izanik gure muina", azpimarratzen du Trascastrok. Eguerdian izaten dute entzu-leek albistegi honen berri. Arratsaldean berriz, Jeni Prietok aurkeztutako *Araba gaur*-en bigarren edizioak hartzen du lekukoa.

Izarren gainerik, kirol saioen distira

Hirukoak eta golak kantatzeaz gain, lan eskerga dute RVko kirol saileko kazetariak. *Primer tiempo* eta *Libre directo* saioek elka-rrizketa, iruzkina eta informazioa uztartzen dituzte astean zehar. Asteburuan aldiz, Tau Ceramica eta Deportivo Alavesen partiduen zuzeneko emankizunek dute lehentasuna. Saskibaloiak berezko doinua du RVn: Rafa Muntionen ahotsa. Rafak makina bat bidaia egin ditu Tau Ceramica jarraitzen eta garai-penen gainerik zaleak ditu gogoan. "CSKA-ren aurka Moskun jokaturako partida gogora-tzen dut bereziki, dena gure kontra zegoen arren irabazi genuen, itzela! Bestetik, Laussanen galdutako finalak Baskoniazaleen marka indartu zuela uste dut".



Plaza nueva

Es lo que hay, zertarako besterik

Informazioa eta entretenimendua da saio honen arrakastaren formula. "Bien arteko uztarketa egiten saiatzen gara, baina gure geneen agindupean entretenimendura jotzeko ohitura dugu", onartzen du Roberto Flores programaren editoreak. Etorkizunaren inguru-

ko buruhausteak ahaztu, eta egunerokoari aurre egitea da saio honen arratsalderoko plana.

Asteburuetako anabasa

Kirola, zinema, kultura, musika, erlijioa, umorea... hauek dira RVk asteburuetan

eskaintzen duen koktel heterogeneoaren osagaiak. Mezaren ostean, astean zehar gertatutakoak gogoratzen ditu *Asteburuko Plaza Nuevak*, besteak beste, eta gero, horiek parodiatu Humberto Gutierrezek *El Vermucito* saioan. *La Fiaca*, *De vuelta y media*, *Al son de la música*, *Eusko Ikaskuntza*, *Bogart baila con lobos*, *Gure musika....* bakoitzak koktela bere gustura egitea dauka asteburuetan! ●



Jose Ramon Diez Unzueta, Txerra. Radio Vitoriako zuzendaria

Ahots ozena du Txerrak, txantxetan ari denean ere errespetua ematen duen horietakoa. Irratia izan da bere hedabide kuttuna, betidanik. Ikasleei urtetan jasotako esperientzia irakasten dihar du Jose Ramon Diez Unzuetak (Durango, 1950) Nafarroako Unibertsitatean. Radio Vitoriako zuzendaria da 1984. urtetik.

- Biharko informatiboa zein albisterekin gustatuko litzaizuke irekitzea?

Arabak 10.000 lanpostu berriren sorrerarekin.

- Gogoratzen duzun elkarrizketarik onena...

Jorge Oteizari eginikoa, Altzuzan, udako ekaitz baten erdian.

- Momenturik onena Radio Vitorian...

Gasteizera heldu nintzenean ilusioz eta proiektuz bete.

-...eta txarrena...

Martxoaren 11ko atentatuak.

- RVren zuzendaritza hartu zenuenetik zeintzuk izan dira aldaketa nabariak?

Gurea sentitu, ulertu eta maite duen profesionalen talde garrantzitsua eratzeaz gain, analogikotik digitalera pasa da irratia eta produkzioa, erredakzioa eta emisioa informatizatu dira.

- Aldatu ez den zerbait al dago?

Mezaren emankizuna.

- RVk 75 urte bete ditu, azkeneko hogeita bostak EITB taldearen barruan.... eta orain zer?

Lanean jarraituko dugu; herriak horretarako ordaintzen digu. Negozio honetan geldirik gertatzen dena bizikletatik erortzen da.



★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

Euskara, gure lurralde libre bakarria

araba@aralar.net • Izardui komandantea 7 behea • 945 154 220 **aralar**



aralar



IZARRA TABERNA
Egueditan, asteleneetik ostiralea
**JANTOKI
BEGETARIANOA**

SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 68 33



ARTEPAN
1983-2008 Victoria - Gastetza

Jesus Guridi, 2
TI. 945 27 88 88 - 28 72 37
El Boulevard Merkatal Zentroa - TI.
945 068 888
01005 GASTEIZ



• Euskaltegi Homologatua • Musika eskola
• Helduentzat • Dantza
• Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - TI: 945 24 49 65
Abendaño kalea, 48 - TI: 945 22 34 33

ZURE HARATEGIAK



AIZPEOLEA

harategia
arraindegia
frutategia
okindegia

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Jose Luis
GARMENDIA
Harategia-urdaitegia

Andaluzia kalea 13 TI. 945 28 79 42
GASTEIZ



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa
www.estudioaltuna.com

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
esal@estudioaltuna.com

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Euskadik
behar zaitu



**EAJ
PNV**



**ERROTA
HORTZ KLINIKA**

Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotradental@euskalnet.net



Errege atea, 9 - GASTEIZ
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2
TI: 945 13 27 20



**Confecciones
Pinedo**

Jantziak
San Antonio, 11 - TI. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 - TI. 945 15 53 39



HEGOALDE
euskaltegia

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

‘GASTEIZKO TOPONIMIA I (HIRIA) ETA II (MALIZAEZA)’

GASTEIZKO TOPONIMIAREN ALTXORRA AGERIAN

ARESTIAN ‘GASTEIZKO TOPONIMIA I (HIRIA) ETA II (MALIZAEZA)’ IZENeko LIBURUAK AURKEZTU ZITUEN EUSKALTZAINDIAK. EGITASMOAREN ARDURADUNA IZAN DEN ELENA MARTINEZ DE MADINA FILOLOGIAN DOKTOREAK AURKEZPENEAN ESANDAKOA DA HURRENGOA: “ORRI HAUETAN AGERTZEN DIREN IZEN GUZTIAK GURE HERRIETAKO IZENAK DIRA, EZ DITU EZEZAGUN BATEK ASMATU, GURE ANTZINAKOEK, ARABARREK, GASTEIZTARREK, GURE HERRI HAUETAKO LAGUNEK BAIZIK, ETA, IKUS DAITEKEENEZ, TOPONIMO GEHIENAK EUSKARAZ DAUDE IDATZITA, HONELA AGERTU BAITZAIZKIGU DOKUMENTUETAN. HEMEN AURKEZTEN DUGUN GUZTIA IKUSI ONDOREN, LASAI ESAN GENEZAKE GURE OHIKO HIZKUNTZA, GASTEIZTARRON HIZKUNTZA, EUSKARA IZAN DELA”.

ONOMASTICON VASCONIAE
28
TOPONIMIA DE VITORIA II
GASTEIZKO TOPONIMIA II

MALIZAEZA

ELENA MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR
HENRIKE KNÖRR BORRÁS (†)

EUSKALTZAINDIA



ELENA MTZ. DE MADINA, EGILEKIDEA:

“IA LAN OSOA IZAN DA EZUSTEKOA”

t. kike fdz de pinedo

a. edorta sanz & kike fdz de pinedo

Pozik ikusten zaio, sekula bukatzen ez zen lanak argia ikusi du azkenean eta lasaitu ederra hartu du, ondo merezita gainera. Orain gure toponimiaren altxorra gasteiztarrek eza-gutzea nahi du, desiratzen du. Eta bide batez, gure agintariak lan hau kontuan har dezaten ozenki eskatzen du.

Egitasmoaren arduradunak Elena Martinez de Madina eta Henrike Knörr izan zarete. Lehenik eta behin, pena bat izan da Henrike lan hau argitaratu baino lehen hiltzea, ezta?

Bai, izugarrizko pena, berarekin 18 urte ibili naiz lanean, eta lan eta ilusio handia konpartitu dugu. Talde baten lana izan da, baina filologoak gu biok ginen. Beraz, penatuta nago ez duelako lana gauzatuta ikusi, baina bestetik pozez, bere lana ere hor dagoelako amaituta. Gero, Jose Luis Lizundiak hartu zuen bere lekukoa eta honek azken bultzada eman dio egitasmoa kaleratu ahal izateko. Baita Andres Urrutia euskaltzainburuak ere.

Azaldu egitasmoaren nondik norakoak. Noiz sortu zen, helburuak...

Hasierako ideia H. Knörrrena izan zen. Esan behar da Gasteizen bazela ohitura toponimoak gorde eta kaleetan erabiltzeko. Nafarroan, bestalde bazegoen Iruñeko toponimia historikoa bilduta, eta adibide hau jarraituz Gasteizko Udalak (J. A. Cuerda alkate) eta Euskaltzaindiak (Haritschelhar euskaltzainburu) hitzarmen bat sinatu zuten 1996an, Gasteizen ere antzeko egitasmoa abian jartzeko. Henrike Knörr proiektuaren buru izendatu eta talde bat osatu zuten. Hiru historiagile -J. J. Galdos, Montserrat Ocio eta Blanca Rescalvo-; Jose Antonio Salazar, laguntza handia eman diguna; gehi Henrike eta biok. Nik filologia,

informatika eta bestelako lanetan jardundut.

Oso bitartekari gutxirekin hasi ginen, hasieran eskuz egiten genuen dena, gero datuak ordenagailura pasatzen nituen datu basea sortuz eta, azkenik, ikerketa etorri da.

“

datu basean baditugu 400.000 toponimo-fitxa

Zein izan da ikerketaren eremua eta nondik atera duzue informazioa?

Gasteiz eta bere 64 herri. Datu gehienak Artxibo Historiko Probintzialesetik hartu ditugu, bertan Arabako eskribau guztien dokumentuak baitaude, XV. mendetik orain dela ehun urte arte, azken mendekoak legeak babesten dituelako. Bertan lau urte eman genituen eta lana izugarrizkoa izan da. Honekin batera Gasteizko Udal Artxiboan, *ondasunen estatistika* izenekoan milaka papertxo arakatu ditugu, demasako lana. Hemen apeok izan dira interesgarrienak. Gero ikerketa etorri zen eta, azkenik, puztzea lea osatu.

Nolakoa da artxiboetako sagu-lana?

Oso nekagarria benetan, eta eskerrak orain

artxiboek ordutegi zabalagoa duten. Ikerketa hau egiteko gainera, oso adi egon behar duzu bereizteko izen bat noiz den errorea edo forma zuzena. Kutsatu gabe joan behar duzu, irakurketa zuzena egiteko. Pentsa, datu basean baditugu 400.000 toponimo fitxa, askotan ondoko testua jasotzen dugu eta hemen leku-izen gehiago agertzen badira, gero bulegoan lana bikoizten da. Ubarrundiarako, adibidez, 40.000 fitxa ditut eta hasierako lana denak ordenatzea izango da. Bestalde, eskribauak hemengoak izan arren, asko ez dira euskaldunak eta euskal toponimo bat entzuten zutenean gelditu egiten ziren askotan, tinta mantxak sortuz.

Beste alerik ateratzeko asmorik?

Udalak laguntzarekin jarraituz gero, Ubarrundiako herrien toponimia bilduko duen hurrengo alea 2010 urtearen bukaerarako atera nahi dugu.

Ezusteko handirik izan duzue ikerketan?

Nik uste ezustekoa izan dela ia lan osoa. Banekien euskal toponimia genuela, baina adibidez testu batean *Palazioetako landea* (Campo de los Palacios) topatzen duzunean izugarria da!, eta honelako asko izan



Barrenkalle irakur daiteke XVI. mendeko agirieta



GASTEIZKO AUZOEN IZENAK

Lehenik eta behin, Elenak auzoak ez direla kaleak bezalako entitate ofizialak argitzen digu. Liburuak, baina, datu bitxiak eskaintzen dizkigu gure auzoei buruz.

Zenbaitetan oraingo formak ez datoz bat orain gutxi arte izan dutenekin. **Judimendi**, **Judimenidoste** edo **Judimendizar** agertzen da "z" gabe oraintsu arte. **Ariznabarra** eta **Arinabarra** formekin nahasketa handiagoa dago agiritan, eta lehen forma hobesten da: haritz nabarra litzateke.

Salburua, agiri zaharretan **Sarburua** (sarri -espesura- + burua) irakur daiteke, hemen ohikoa den r/l nahasketa emango zen, eta Elenak dioenez "ez du merezi izena aldatzea". Antzeko nahasketa gertatu da **Aransabela** eta **Aranzabelaren** artean ("z"-rekin XVIII. mendetik aurrera agertzen da), hemen lehena hobesten da: Aran + sabela (tripa, erderazko "hondanada" esanahiarekin).

Txagorritxuren forma zaharra **Etxagorritxo** da (Etxe + gorri + txo). Baina, "lehen forma oso finkatuta dagoenez hobe bere horretan uztea". Zezen-plaza ondoan bazegoen beste **Etxagorritxo** bat, egun desagertu den arren.

Badira, **Arana** bezalakoak bere horretan iritsi direnak, edo **Gatzalbide** (Gatzari- *salinero(s)*+ bidea).

dira. Modu berean, testu batzuetan itzulpen zuzena agertzen da: "una pieza en el termino de El Rincón, y en basquenze Oquelua"; edo antzekoak: "otra heredad en el termino que llaman Elesostea, tras de la yglesia de dicho Mendiola". Halere, ezuste ederrenak eraman ditut ikerketa egitean, antzinako toponimo bat oraingo batekin lotzen duzunean edo zerbait berria aurkitzen duzunean.

Liburuan ikusi dugunez, Gasteizko toponimo askotan euskal eta erdal formak txandakatzen dira, eta XVIII. mendetik aurrera gaztelaniazko aldeak nagusitzen dira.

Bai, esan dezakegu ia, ia, XVIII. mendera arte toponimoen % 90-95 euskarazkoak direla, argi eta garbi. Eta mende honetatik aurrera badago trantsizio epe bat, non biak mantentzen diren, bai euskal toponimoa eta bai bere erromantzezko kidea, eta gero, berriz, euskarazko batzuk galdu, beste batzuk desitxuratu eta beste hainbat gaur arte iritsiko dira. Jakina, normala da euskara galdu ahala toponimoa identifikatzea ulertzen den hizkuntzarekin.

Hau garbi ikusten da liburuan bide eta camino-rekin ezta, adibidez, Aranbizkarbide eta gero Camino de Aranbizkarra edo, Salbaterrabide eta Camino de Salbaterrabide.

Bai halaxe da, hasieran bakarrik -bide agertzen da, baina beranduago *camino de...*, batzuetan aurreko bide ere gordez. Antzeko bikoizketak ematen dira ia sistematikoki *aurre/delante de; oste/detrás de; edo alde/junto a*, sekula ez ondo.

“**testu batean palazioetako landea (campo de los palacios) topatzen duzunean izugarria da!**”

Toponimoen ordezkatzeko prozesua dela eta, Gasteizko hizkuntz egoera hobeto zehazte aldera, ondorioren bat ematen ausartzen zara?



KALEEN IZENEN DANTZA

Barrencalle (Beheko kalea) irakur daiteke 1590ko agiri batean, gero urteekin Barrancal itxurarekin iritsi bada ere. **El callejón de Cachán**-ek eta beste hainbatek suerte txarragoa izan dute kalea bera desagertu delako. Agirre eta Landa Zadorrara askotan joaten ziren bi gasteiztar ziren, bietako bat errekan itota hil zeneko istoriori zor diogu municipalen kalearen izena, horregatik **Agirre-Landa kalea**, gidoiekin idaztea proposatu digute liburuan. Hau bezalako kontu interesagarriak jasotzen dira ikerketan, baina deigarrenetarikoa da erdiko hainbat kale eta plazen izen dantza, gehienetan, erregimen politikoen aldaketan bidetik emanak. **Diputazio** kaleak, esate baterako, **las Huertas, Constitución** eta **Generalísimo Franco** ezagutu ditu. **Andra Mari Zuriaren** plazak: **Plaza Real, Mayor, Vieja, de Castilla**, harik eta 1901 urtean oraingo izena hartu zuen arte. Merkatua oso aspalditik bertan egiteak **Plazuela del Mercado** izena ere emnan zion, baita bi txokori: **Plaza de las Alubieras** eta **P. de las Olleras**. Ohikoa zenez, bere aldaera herrikoiak ere izan zituen: **El Mentirón**, gasteiztarren txutxumutxu lekua omen; eta **Plaza del Sartén** bere itxura zela eta. Hain zuzen ere, **Plaza Vieja**-tik bereizteko Olagibelek ondoan egin zuen plaza arkudunak **Plaza Nueva** izena hartu zuen, gero **P. de la Constitución, de Alfonso XIII**, 1931an **P. de la República** eta Francoren estatu kolpeak, azkenekoz aldarazi zion izena **Plaza de España** ezagunarekin.



Zidorra toponimo zaharraren itzulpena bide da La Senda



Plazak hainbat izen ezagutu ditu: Vieja, Mayor, Mentirón, del Mercado...



Ez dut ausartegia izan nahi, baina hainbeste urte lanean ibilita zera esango nuke, Mendebaleko euskalkian kokatu behar dela hemengo euskara. J.L. Lizundiak hitzaurrean dioen moduan, antzeko euskara dugu Greenwich meridianoarean 2° 40' lerroaren inguruan, hots Durangaldean eta Gasteizen. Eta hor dago ere Koldo Zuazoren azken teoria, hau da, nondik dator eragina Durangaldetik gurera edo aldrebes. Fonetika aldaketak eta lexikoa aztertzeak aukera ematen du. Eta azkenik Gasteiz hirian euskara XVIII. mendean, batez ere erdialdetik aurrera, galduko zela ikus daiteke. Jakina, Ubarrundian ziur nago galera data desberdina emango didala.

Baira euskal toponimo batuzk jatorrizko forma dutenak eta gure kaleetan ikus ditzakegunak, Barrenkale, Aldabe, Basoa.

Bai eta Gasteizen bazegoen toponimo hauek gordetzeko ohitura, azken boladan galdu dena. Berdin da nor dagoen udalean PNV, POSE, PP... berdin dio. Paso egiten dute guk emandako txostenez. Lehen batzorde bat zegoen eta bertako toponimoak gordetzen ziren: Aldabe, Basoa, Errekaleor, Iturritxu... Orain, ordea, Zabalzana eta Salburua auzoetan adibidez paso egiten dute, 30 toponimo eman, eta horietako bakarra erabili dute: "el asestadero", hain juxtu guretzat kale baten izenerako oso egokia ez zena. Azken kaleei ere emakumeen izenak eman dizkiete, ondo dago, baina hainbeste kale egonda baliatu gure toponimoak ere bai!

“**agintariekin paso egiten dute gure txostenez**

Zein garrantzi du toponimia historikoren berreskurapenak?

Garrantzitsua, batetik, gurea delako, gasteiztarren ondarea. Bestetik, konturatzeak zein izan den gure hizkuntza. Eta ez du gipuzkoar batek edo Euskaltzaindiak asmatu, ez du banderarik eta ez ezer. Hor dago



Aldabe toponimo zaharra: aldaparen behean

eta mantendu egin dugu, itxuraldatu badugu ere. Azken batean, geure burua hobeto ezagutzeko tresna da.



toponimia garrantzitasua da gure ondarea delako

Pozik emaitzarekin?

Bai, batez ere liburuak argitaratu delako. Hobeto egin daiteke seguru asko eta akatsen bat egongo da, baina lana hor dago eta gasteiztarrei eskaini nahi diegu.

Lasai geratuko zinen lan mardul hau bukatuta, zorionak!

Bai, baina gusturago egongo ginatke geure agintariekin ardura gehiago hartuko balute gure izen eta toponimoekin, eta finean, ikerketa honetaz gehiago baliatuko balira.

GASTEIZKO TOPONIMIAREN BITXIKERIAK

Altxor paregabea eskaintzen digute bi liburuok geure hizkuntz paisaia zaharra ezagutzeko. Hauetariko toponimo zahar asko galdu egin dira denboraren poderioz: **Erditakobidea** (gero Camino de Ali o Abendaño); **Etxabidea** (Santiago ospitalaren ondoan); **mercado de los Bueyes o del Ala** (orain Matxete plaza dagoen inguruan) edo **Molinatxo**, azken hau errota, iturria, auzoa eta kalea izan zen eta San Antonio eta Manuel Iradier kaleen bidegurutze inguruan zegoen.

Beste batzuk desitxuratuta iritsi dira: **Ureitiso**, agirietan orain gutxi arte **Oreitiasolo**; **Burubizkarra**, **Borinbizkarra**-ren (Borin -errota- + bizkarra) desitxuraketa; Ansoleta, orain-tsu arte **Auntzoloeta** (ahuntz + solo + eta) zen. Edo bi eratan eman dira: **Errekatziki eta Errekatzipi**.

Besteetan euskal toponimo batetik erdal itzulpena sortzen da, aurrekoa pixkanaka ordezkatzuz. Atal honetan ezuste ederrak aurkitu dituzte: oraingo Campo de los Palacios, 1659an **Palazietatoko landea** moduan irakur daiteke, baita **Palacieta**, **Palacioostaldea**, **Palazioaurra**... Estadio inguruan ere orain gutxi arte zegoen **Zidorra** toki-izenaz hau irakurri dugu: “*es muy probable que el moderno Paseo de la Senda sea una traducción de Zidorra*”. Ondoko **Mendizorrotza** XV. mendetik agertzen da, eta XX. mendekoa da **Monte el Pico**. Uste herrikoiazen arabera Andra Mari Zuriko plazan XIX. mendearen bukaeran putzu artesau bat egiteko hustutako lurrarekin sortua da, baina toponimoaren antzintasuna ez dator bat uste horrekin. Antzera gertatzen da **Mendizabala** eta **Monte la Tortilla** moderno-arekin.

Bitxia da, era berean, hiriko hiru leku desberdini izena ematen zien **Kurutzezuri/Cruz Blanca**-ren toponimoaren txandakatzea. Ildo berekoak dira: **Justiziagana/Alto de la Justicia**; edo **Kaskaxueta/los Cascajos**...

Bestalde, Malizaeza merindadeko 12 herrietan (Arriaga, Ehari, Mendiola, Gaztelu, Aretxabaleta...) asko dira izen bitxiak: Zaldiaran mendatearen igoera ondoan **Las Ventanas de Marizulopea** izen ederra topatu dugu, duda barik, Mari pertsonaia mitologikoaren arrastoa, Zabalganako **Mariturrin** bezalaxe. Edo **Juandonejoanesbidea** (Juan/jaun + done -San- + Joanes -Juan- + bidea), Arriagako San Juan ermitarako bidea adieraziz, eta **Juandonemikela** Mendiolan, biak Santuak izendatzeko era zaharraren lekukoak.

Galbarreta, Gazeta, edo **Meana** desagertutako herrixkek toponimo izena baino ez digute utzi. Eta azkenik, herri gehienetan aurki dezakegun **Ardantza** toki-izenek hiri ondoko mahastien agerpena salatzen digute.

Gasteizko eta Malizaeza merindadeko toponimo historikoak eta gaur egun bizirik dirautenak biltzen dituzten lan horien egileak hauek dira: Henrike Knörr eta Elena Martínez de Madina. Horiekin batera, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Juan Jose Galdos, Montserrat Ocio eta Blanca Rescalvo ikertzaileek osatu duten taldea aritu da informazioa biltzen. Knörr taldeko zuzendaria zen, eta hil ostean Jose Luis Lizundia euskaltzain oso eta Exonomastika batzordeko buruak hartu zuen bere gain zeregin hori.

Hasieratik, egitasmoaren babeslea Gasteizko Udala izan da.

Gasteizko Toponimia I / Toponimia de Vitoria I (Ciudad / Hiria) liburuak Gasteizko hiriari dagokio, soilik, eta bi zatitan banatzen da: Gasteiz Hiria I, Toponimia, eta Gasteiz Hiria II, Kale Izendegia.

Gasteizko Toponimia II / Toponimia de Vitoria II (Malizaeza) liburuan, aldiz, Malizaeza merindade barruan zeuden herri guztien toponimoak bildu dira, hots, Ali/Ehari, Aretxabaleta, Armentia, Arriaga, Berroztegieta, Castillo/Gaztelu, Eskibel, Gardelegi, Lasarte, Monasterioguren eta Mendiola herrietako toponimoak. Gobeo/Gobeu ere sartu da.



Palazioetako landea deitzen zen, gero Campo de los Palacios

VIRGINIA BOLOIX:

ZARAGOZAKOA DUGU VIRGINIA. 34 URTE, ERIZAINA. GASTEIZTAR BATEKIN EZKONDURIK DAGO ETA DAGOENEO LAU URTE DARAMATZA GURE ARTEAN BIZITZEN. LANA ZELA ETA, EUSKARA IKASTEN HASI ZEN ETA EKINAREN EKINEZ BIGARREN PERFILA ATERA BERRI DU. POZ-POZIK MINTZATU ZAIGU BERE LORPENAREN INGURUAN, EGUNERO OSPATZEN DUELA AZALDUZ.

“Herriak dena eskatu eta gutxi ematen du”

t. ane pedruzo **a.** edorta sanz

Euskalduntzearen bidetik jarraitu nahi du EGA lortu arte eta aitortu digunez gustura asko arituko litzateke barnetegietako euskara irakasle moduan. Izan ere, lau barnetegitan egona da eta oroitzapen politak dauzka: Behin Anje Duhaldekin batera jota bat kantatu zuen eta Julian lantziri, bera konkistatzeko munduko zein tokitaraino joan behar ote zen ere galdetu zion! Eta hau gutxi balitz, bere mintzalagunekin barnetegi txiki bat antolatu du Zaragozan... Neska ausart eta burutsua gero! Askok dauka kontatzeko eta GEUrekin hainbat kontu partekatu ditu.

Duzun biziorik handiena? Bidaiatzea.

Bertuterik? Oso alaia eta moldagarria naiz.

Akatsik? Ez dago lekurik denak aipatzeko!, kar-kar! Aragoitar onen antzera oso burugorria naiz eta ipurtarinergia naizela ere esango nuke, “Chicho terremoto” bezalakoa naiz sarritan!

Zer eskatzen diozu bizitzari? Ez aldatzea. Orain nagoen moduan gelditu nahi dut, ez dut dirurik nahi, ezta loteria irabazterik ere, berdin jarraitzearekin nahikoa daukat.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Politikak eta politikariek, gerrek... Honez gain, supermerkatuan atsoek ilaran aurea hartzen didatenean ere asko urduritzen naiz.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk? Noiztik? Ez...

Egunkari bat? Normalean ez dut egunkaririk irakurtzen, eta irakurtzekotan dagoena hartzen dut, berdin zait!

Telebista saio bat? ‘Aida’ eta ‘El hormiguero’.



Barregura eragiten didaten saio dinamikoak dira eta mundu honetan, barre egitea behar-beharrezkoa da.

Beldurrik? Gaixotasunek izugarri beldurtzen naute, lanean hainbeste ezbehar ikusita...

Oporrak non eta zertarako? Mementuaren arabera... Azkenaldian atzerira bidaiatzen nabil, kultura desberdinak ezagutzeko.

Nora ez zinateke joango? Gatazka batean murgildurik dagoen toki batera edo herrialde

pobreetara, ez nago psikologikoki prest egotera horiei aurre egiteko.

Eguna ala gaua? Eguna... Duela urte batzuk gaua erantzungo nuke baina adinarekin egunaz gozatzen ikasi dut. Gainera gaua bizitzeko eguna galtzen duzu...

Gasteizko gaua non? Periferiako auzoetan, Lakuan esaterako. Dena den, ez naiz askotan irteten, txandaka lan egiten dudanez, pixkaka, parrandan ibiltzeko ohitura galdu dut.

Liburu bat? Oso gutxi irakurtzen dut, lana dela, euskara dela... ez dut denborarik! Komodin gisa 'El código da Vinci' esango nuke, azkarren irakurri dudana liburua da.

Film bat? Zergatik? 'Kutsidazu bidea, Ixabel' izugarri gustatu zitzaidan, oso identifikatua sentitu bainintzen pelikulako protagonistarekin. 'Superman' filmak ere oroitzapen politak dakarzit gogora, izan ere, Christopher Reevez maitemindu nintzen, nire amodio platonikoa zen eta pelikula ikuste hutsak lotsa ematen zidan! Kar-kar!

Edari bat? Kafea.

Janari bat? Arrautza frijituak amonaren patatekin.

Kolore bat? Lehen horia zen baina gaur egun guztiak gustatzen zaizkit, pertsona koloretsua naiz!

Abeslari bat? House Martins.

Kirol bat? Boxeo eta xakea salbu, beste guztiak atsegin ditut, kirolzale amorratua naiz.

Txikitatik igeriketan ibili naiz eta ez dut Nadal eta Baskoniaren partidurik, ezta Alonsoren lasterketarik ere galtzen.

Zer da gasteizek duen onena? Alde zaharra, flipatzeko modukoa da! Garbitasuna ere atsegin dut, eta jendea ere bai, nahiz eta hasieran ez den oso irekia... euskaldunak gutxi nahasten zarete zuen artean, ligatzeko kanpora joan behar da!

Txarrena? Eguraldia dudarik gabe! Euriak eta lainoek markatzen dute Gasteizko egunerokotasuna! Behin hotzaren atea irekita ez dago ixterik!

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Oso zaila da... Egia esan, ez dut ulertzen euskara ikasteko barnetegi batera joan behar izatea... Ni zehazki Sansomendi auzoan bizi naiz eta ez dut aukerarik ogia euskaraz erosteko.

Ahets bat? Ama izatea.

Amesgaizto bat? Istripuren bat izatea.

Iragana, eguna ala etorkizuna? Iragana ez,

jada igaro delako! Etorkizuna esango nuke, beti pentsatzen baitut etorkizuna hobe izango dela, mementurik onena oraindik ez zaidan heldu... bestela?

Zer eskatzen du herriak? Dena eskatu eta gutxi ematen du.

Zer izan duzu gakoa euskara ikasteko orduan? Irmotasuna ezinbestekoa da eta horrez gain lotsa galdu behar da, nahiz eta euskara gutxi jakin, dakizun apurra erabili behar duzu. Azken kontu honetan euskaldunek asko laguntzen dute, harro sentitzen dira euskaraz egiten saiatzen zarela ikustean!

Asko kostatu zitzaizun? Bai... Hasieran euskara swahilia edo txinera bezain ulergaitz suertatu zitzaidan, kaixo-ren esanahia ere ez nuen ezagutzen! Gogoan dut nor-nori ikasten hasi ginenean pentsatzen nuela: zer izango ote da norit, nik ezagutzen dudana Norit bakarra garbigarria iragartzen duen bildotsa da!, kar-kar! ●

m08

M08 ARTEA ETA IKERKETA
09ko maiatzak 22 - abuztuak 30

PROIEKTU ARTISTIKOAK

Ion Arregi FONDO I: ESTIMAS, VARIACIONES Y CONTRADICCIONES ROMÁNTICAS /
Marcelo Expósito NO RECONCILIADOS (NADIE SABE LO QUE UN CUERPO PUEDE) /
Aurélien Froment THE FOURTH WALL / *André Guedes* AIROTIV / *Irene Kopelman* EL VUELO DE LÉVY / *Nathaniel Mellors* GIANTBUM / *Pia Rönicke* FACING / *Lisa Tan* LANGUAGE BARRIER

KOMISARITZA

THERE IS NO AUDIENCE! Alikidd + Jade Sou, Can Altay, Fikret Atay, Johanna Billing, Gerard Byrne, Elmas Deniz, Olof Dreijer & Mamori, Hadley + Maxwell, Christian Hillesoe & Johan Tirén, Lynne Marsh, Ming Wong — Komisarioa: Adnan Yıldız

AZKENA ROCK FESTIVAL 2009: EGON ZINEN? ZER IRUDITU ZITZAIZUN?

Aurten ere GEU ARFn egon da eta kontzertuez disfrutatzeaz gain giroan bete-betean sartu da. Azkenazale askorekin hitz egin dugu eta beren iritziak eman dizkigute festibalaren inguruan. Guztiekin oso ondo pasatu genuen solasaldian eta denei eskertzen diegu egindako ahalegina gure erreportaia landu genezan.

Hona hemen, beraz, aurtengo edizioaren inguruan bildutako iritziak:

- 1- Zer iruditzen zaizu aurtengo kartela? Deigarriena?
- 2- Zergatik etorri zara Azkenara?
- 3- Lehen aldiz Azkenan? Zenbat aldiz?
- 4- 2009ko Festibalaren balorazioa.

t. a. idoia breñas



SERGIO, 34 URTE, LOGROÑO

1. Ez dago batere gaizki baina lanean nagoenez aukera gutxi daukat kontzertuak ikusteko. Dena den, niretzat bereziene The Zombies dira.
2. Aurten lanera etorri naiz baina aurreko urteetan kontzertu guztiak ikusi ditut.
3. Hasi zenetik Azkenara etorri naiz, gogoan dut oraindik lehenengoa Azkenara aretoan egin zela. ARFren zale amorratua naiz.
4. Ez naiz asko enteratu, hotz asko egin du gauean eta egunero ixten dituzten taldeak ez dira batere potenteak. Beste hainbat talde zegoen ixteko gauero.



ONEKA, 30 URTE, GASTEIZ

1. Nahiz eta kartelaren burua talde batez osatuta egon, nire ustez sorpresa handiak daude eta pixkanaka-pixkanaka horretaz ohartuko naiz. Black Crowes ikustera etorri naiz batez ere, baina aipatuko nituzke Howlin Rain eta Woven Hand, gogo handia daukat ikusteko.
2. Azkenara da urtero itxaroten dudana hitzordu musikala eta ez dut inoiz galtzen, musika ona eta giro ona nahasten baitira.
3. Urtero. Edizio guztiak daramatzat nire gorputzean.
4. Eguraldiarena ez geneukan ziurtatuta maiatzean, baina izugarritzko asteburua izan dugu nahiz eta gauean hotz egin.



NESTOR, 29 URTE, GASTEIZ

1. Maitasuna eta gorrotoa, hau da, badaude nire gustuko hainbat talde baina beste talde potente bat falta da kartela benetan osatzeko. Dena den, ni batez ere Black Crowes ikustera etorri naiz, aspalditik etorri behar ziren ARFra eta aurten zorionez hemen daude.
2. Kontzertuez gain giroa oso ona da eta beste lekutako lagunekin topo egiten dut.
3. Azkenara aretoan hasi zenetik etorri naiz, Azkenazale amorratua naiz, El Templo del Mal-eko kidea izateaz gain.
4. Eguzkia atera da!!!



MIGUEL, 33 URTE, OURENSE

1. Ni kasualitatez etorri naiz festibalera, hortaz ez daukat ideia handirik taldeen inguruan Black Crowes eta Alice Cooper izan ezik.
2. Galiziarra naiz eta Gasteizko lagun batzuk bisitatzea etorri naiz, ARFra etorri behar ziren eta hementxe nago beraiekin.
3. Nire lehenengo Azkenara da eta ez dakit bueltatuko naizen.
4. Nahiz eta kasualitatez etorri talde oso interesgarriak ikusten ari naiz. Askok gustatu zait Juliette Lewis eta bere jarrera.



XABI, 21 URTE, ARRASATE

1. Aurteko karteletik aipatuko nituzke Toy Dolls eta Alice Cooper, baina zoritxarrez ez ditut ikusiko lan egin behar dudalako. Bakarrik lehenengo egunean etorri naiz. Nire lagunak etorriko dira eta kontatuko didate.
2. Beti gustatu zait festibala, baina aurten ez neukan asmorik etortzeko. Azkeneko orduan hartutako erabakia izan da eta oso gustura nago.
3. Hiru aldiz etorri naiz festibalera eta oso ondo pasatu dut beti.
4. Bakarrik egun bat etorri naiz eta batez ere Juliette Lewis eta Hardcore Superstar nahi nituen ikusi eta asko gustatu zaizkit, oso potenteak eszenatokian. Txarrena ezin ateratzeara egun bateko sarrera erosiz gero, kartzelan sentitzen zara erabat, ezin zara kotxera joan zure txupa hartzera, edo zerbait kanpoan afaltzera. Dena den, banekien eta horrela izaten da normalean.



XABI, 35 URTE, GASTEIZ

1. Egia esanda aurten ez ditut talde asko ezagutzen, ezagunenak izan ezik, baina beti etortzen zara zerbait berria ikustera, eta horretaz ere disfrutatzen.
2. Nire gustuko festibala da musikarengatik eta sortzen den giroagatik.
3. 4 urte daramat etortzen eta ziur aski jarraituko dut hurrengo urteetan etortzen.
4. Lehenengo eguna aspergarria izan zen niretzat. Askok gustatu zaizkit Dr. Dog, Eli 'Paperboy' Reed eta Black Crowes, zelako kontzertua!!! Oso dibertigarriak Electric Eel Shock japoniarrak, beren energia osoz punk-a jotzen, harrigarria! Dan Auerbach ere sorpresa izan da.

JUAN, 35 URTE, GASTEIZ - GALIZIA

1. Oso ondo dago, mota askotako taldeak daude eta eskertzekoa da horrelako kartela izatea. Dena den, nik ikusi nahi dut The Zombies, Dr. Dog eta Woven Hand. Asko gustatzen zait kartelaren egitura, gauza oso berriak eta klasikoak nahasten direlako. Black Crowes-ek aparte beste talde potente bat falta da, nahiz eta Alice Cooper izan.
2. Urtero saiatzen naiz hona etortzen, sortzen den giroa eta programazioaren aniztasuna asko gustatzen zaizkidalako.
3. Hiru aldiz etorri naiz eta gehiagotan etorriko naiz, ziur.
4. Oso ondo dago festibala, ordutegiak ondo antolatuta daude, nahi baduzu atsedean har dezakezu talde bat edo beste ikusi nahi ezean, eskertzekoa da. Dena den, barruko eszenatokian soinua batzuetan oso txarra izan da. Hala ere giroa ezin hobea da.



IGNACIO, 46 URTE, LOGROÑO

1. Asko gustatzen zait aurtengo kartela, ez dut dena oso ondo kontrolatzen baina ikusi dudane-tik honakoa aipatuko nuke: Dr. Dog, Elliot Brood, Howlin Rain eta Eli 'Paperboy' Reed.
2. Hemendik dauden festibaletatik nire gustukoena da ARF, nahiko eklektikoa baita.
3. Urtero etorri naiz eta tradizio bat da nire egutegian. Eskarmen-tu handiko Azkenazalea naiz.
4. Beldur nintzen eguraldiarekin baina izan ditugu hiru egun izugarriak, musika ona, eguraldi ona...zer gehiago eska dezakegu?



NAIARA, 29 URTE, GASTEIZ

1. Aurtengo kartela niretzat ez da oso aipagarria, ez dago ezer berezirik niretzat, baina egia da jakinmin handia daukadala Black Crowes, Juliette Lewis eta The Breeders ikusteko. Bestalde kritika oso onak entzun ditut T.S.O.O.L. inguruan.
2. Urtero etortzen naiz Azkenara, Gasteizen egiten den kalitatezko hitzordu musikala baita. Batez ere kontzertuak ikusi nahi ditut, baina aldi berean lagun askorekin topo egiten dut eta giro oso berezia sortzen da.
3. Mendizabalan hasi zenetik urtero etorri naiz. Nire ustez Iggi-ren kontzertua onena izan da orain arte. Ez dut inoiz ediziorik galduko nahiz eta taka-takan etorri, kar-kar-kar!!! Asko gustatzen zait sortzen den giroa, kideasun asko sortzen da txikia delako. Dena den, hemengo talde gehiago ekarri beharko lituzkete, hemen bertan talde interesgarri asko baititugu.
4. Oso gustura ibili naiz eta talde berriak ezagutu ditut: T.S.O.O.L., Mike Farris eta Eli 'Paperboy' Reed...

IÑAKI, 27 URTE, ALGORTA

1. Kartela izugarria da. Pentsatzen nuen jazkoa hobetzea ezinezkoa zela, baina Black Crowes-ek egon diren edizio guztien kartela gaingaitzen dute. Honetaz gain, Mike Farris, The Sonttrack Of Our Lives eta Woven Hand aipatuko nituzke.
2. Nire ustez alde honetako festibal onena da, rockero-ena eta lagun gehien ikusten dudan festibala... eta jakina, Black Crowes-ek jotzen dutela!!!
3. Iaz etorri nintzen lehen aldia izan zen eta urtero etorriko naiz. Ez nituzke hurrengo urteetakoak galdu nahi, ez bakarrik musika mailagatik, festibal berezia delako baizik, besteekin alderatuz ezberdina da.
4. Edarien prezioak izan ezik beste guztiak 10 bat merezi du.



DAVID, 30 URTE, GASTEIZ

1. Aipatuko nuke soul eta funky inguruan egin den apustua: Eli 'Paperboy' Reed eta Mike Farris. Bluesekin lotuta dauden taldeak ere aipatuko nituzke. Kartelaren maila ezin hobea da kontuan izanda diru laguntzen murrizketa gero eta nabariagoa dela festibal guztietan.
2. Inoiz ez naiz etorri, nire lehenengo Azkena da. Aurtun etorri naiz soul zegoelako eta bide batez beste guztiaz disfrutatzen.
3. Hau da nire lehenengo Azkena eta espero dut azkena ez izatea.
4. Momentuz ez ditut talde asko ikusi batez ere Eli 'Paperboy' ikustera etorri naizelako, baina Juliette Lewisen heroi itxurak liluratu nau. Alde txarrean janari eta edariaren prezioak, oso garestia da guztia.



DANI, 31 URTE, GASTEIZ

1. Beti bezala kartelaren talde batzuk oso gustukoak ditut eta beste batzuk ez, baina horrela izan ohi da beti hainbeste taldeen artean. Batez ere, Black Crowes, Howlin Rain eta Dan Auerbach ikustera etorri naiz, baina beste hainbat talde ere ikusiko ditut beti zerbait berezia aurkitzen duzulako.
2. Tradizio bat da eta oso gustura nator festibalera urtero.
3. Edizio guztietara etorri naiz, hasi zenetik Azkena aretoan. Kontzertuzale amorratua naiz eta festibala ez dut inoiz galtzen.
4. Lehenengo egunetik ez nuke ezer aipatuko ez zitzaidalako ezer gustatu. Besteak beste, Howlin Rain, Elliot Brood, Dr. Dog, Black Crowes aipatuko nituzke, baina oraindik talde asko geratzen dira ikusteko eta itxaron behar dut dena ikusi arte.

NACHO, 34 URTE, MADRID

1. Oso ondo dago, mota askotako taldeak daude eta azken orduko talde erorketak izan ezik dena ondo iruditzen zait. Dakizuenek The Queens eta Bad Brains-ek ez dute joko eta niretzat pena bat da, gogoa neukalako talde mitiko hauek ikusteko. Talde asko ikusi nahi ditut: Black Crowes, Toy Dolls, Eli



- 'Paperboy' Reed... eta hain ezagunak ez direnak ere.
2. Azkena festibala berezia da musika aldetik eta giro aldetik.
3. Zazpi urte daramat etortzen eta jarraituko dut gauza bera egiten hurrengo urteetan. Asko gustatzen zait festibal hau.
4. Nahiz eta gauean hotza egin egunean zehar eguraldi izugarria izan dugu. Bestalde, beste urteetan baino jende gehiago egon dela iruditzen zait eta beti bezala giro ezin hobea.

TORTURARI STOP

MAIATZAREN 28AN 14 ARABAR INPUTATZEN DITUEN 15/02 SUMARIOAREN EPAIKETARI HASIERA EMAN ZITZAION AUDIENTZIA NAZIONALEAN. SENIDE ETA TORTURATUEN ASANBLADAK TORTURAPEAN JASOTAKO TESTIGANTZAK DIRELA SALATU ETA HORREN INGURUKO TXOSTEN OSATU BAT GIZARTERATU DU. HONA HEMEN BERTAN JASOTAKOAK.

t. edurne begiristain

"Hau da Guardia Zibilak utzi zidan aurpegia egun eta erdiz torturatzeko jardun ostean". Aurpegi itxuraldatuta erakusten zuen argazkia eskuetan zuela Unai Romano gazte gasteiztarraren tortura salaketak oihartzun handia izan zuen duela zortzi urte. Gaur gaurkoz polizia etxeetan tortura eta tratu txarrak existitzen direla erakusten duen lekukotza grafiko ezagunena izaten jarraitzen du argazki hark. Zortzi urte igaro dira gizarteak Romanok pairatutako torturen berri jakin zuenetik, eta oraindik askorengan zirrara eta ikara eragiten du argazki hura ikusteak. Inkomunikazio aldian sarri askotan gertatzen den infernua gogora ekartzen duen argazkia da. Baina, tamalez, tortura testigantza gehiago dago. Horien artean, maiatzaren 28an Espainiako Auzitegi Nazionalera 15/02 sumarioaren barruan inputatu gisa deklaratzera joan behar izan zutenenak. Izan ere, Guardia Zibilak 2001ean eta 2002an egindako sarekadetan atxilotutako hamalau gazteren aurkako epaiketa hasi zen maiatzaren amaieran Madrilén.

ETako kide izatea leporatuta, seina urteko espetxe zigorra eskatu du fiskalak hamalau gazteren aurka. Inputatuek salatu zutenek, torturapean lortutako testigantza eta autoinkulpazioengatik epaitu dituzte. Hamalau inputatuetatik hamahiruk torturak salatu zituzten Guardia Zibilaren esku inkomunikatuta egon eta gero. Inputatuek egindako tortura salaketa guztiak artxibatu zituen Espainiako Auzitegi Nazionalak, baina Unai Romanoren salaketak aurrerago egin du. Auzitegi Konstituzionalak salaketa artxibatu ondotik, Romanok Europako Batasuneko Giza Eskubideen Auzitegira jo zuen

iazko urrian. Hark azaldutakoaren arabera, Espainiako epaitegietan ez delako nahiko berme judizial egon salaketa ikertzeko jo du Europara. Europako Auzitegiak ez du tortura salaketa bera ikertzen, baina berme judizialik egon den ala ez aztertzen du. Romanoren alde egiten badu, Espainiako epaitegiak kasua berriro jorratzera presiona ditzake, nahiz eta erabakia ez den bete beharrekoa.

Iragan maiatzaren 28an honako lagunek joan behar izan zuten Madrilera inputatu gisa deklaratzera: Juan Carlos Subijana, Daniel Gutierrez, Jose Ramon Acedo, Jon Etxeberria, Sendoa Dominguez, Iban Saez de Jauregi, Raul Vallinas, Aitor Duran, Unai Romano, Jokin Zerain, Juan Antonio Cortes, Susana Atxaerandio, Zigor Bravo eta Enrique Urarte. Laugarren aldia izan zen epailearen aurrean agertu behar izan zutela: 2006ko abenduan, 2008ko azaroan eta 2009ko urtarrilean ere deitu zituzten deklaratzera, baina kasu guztietan epaileak bertan behera utzi zuen ahozko epaiketa, azalpenik eman gabe.


Elkartasun eta babes zabala izan dute 15/02 sumarioko inputatuek haien aurkako auzibidea hasi zenetik. Eusko Legebiltzarrak, esaterako, 2006ko abenduaren 1ean egindako osoko bilkuran legez besteko proposamena onartu zuen torturapean lortutako deklarazioak onartzen dituelako Auzitegi Nazionala desagertzeko eskatuz, Espainiako Gobernuari tortura erabiltzen duela onartzeko eskatuz, eta tortura pairatu duten lagunei elkartasuna adieraziz. Halaber, eragile politiko eta sozial ugariak babesa agertu diete inputatuei, Torturari Stop aldarrikatuz. Besteak beste, honakoek agertu diete babesa: Aralar, ezker abertzalea, EA, EAJ alderdiek, EHNE, ELA, ESK, Hiru eta LAB sindikatuek eta beste hamaika gizarte eragilek.



15/02 sumarioaren inguruan gaitzespen agiri bat kaleratu du Theo Van Boven, NBEko torturari buruzko kontalari berezi izandakoak [berria, maiatzak 27]

Espainiako estatuak ez du sekula onartuko hemen torturatzen dela. European dut itxaropena [Unai Romano. berria, maiatzak 27]

Amnesty Internationalek tortura salaketak ganoraz ez ikertzea egotzi die Frantzia eta Espainari [berria, maiatzak 28]



TORTURA LEKUKOTZAK

Tortura lehenbiziko pertsonan sufritu dutenen ahotik izan dugu praktika anker horren berri. Txostenean jaso bezala, honakoa da 15/02 sumarioan inputatutako gazte horietako batzuek duela zortzi urte bizitako infernuaz kontatu zutena:

Jokin Zerain: “Behin kotxean sartu ondoren kaputxa ipini zidaten eta buruan kolpeka hasi ziren, pistola bat ipini zidaten eta hilko nindutelarekin mehatxu ninduten, poltsa egin zidaten eta irain sexualak jasan nituen”.

Sendoa Dominguez: “Laster jarri zidaten kaputxa bat eta beraiek gura zutena esaten ez nuenean poltsa egiten zidaten, gorputza osotik jotzen ninduten eta lepoan deskarga elektrikoak aplikatzen zizkidaten”.

Raul Vallinas: “Laupabost polizia neuzkan inguruan eta berehala poltsa bat sartu zidaten burutik behera. Pixkanaka biluztarazi ninduten, eurek agindutako arropak kenduz. Gero erabat biluzik eta zutik, flexioak eginarazi zizkidaten”.

Jose Ramon Acedo: “Jendea zegoela entzuten zen eta galderak egiten eta gorputz osotik kolpatzen hasi ziren, gehienbat buruan, telefono gida baten antzeko zerbaitekin”.

Iban Saez de Jauregi: “Etengabeko umilazioa eta amorrua zen. Nire neska-laguna bortxatuko zutelarekin mehatxatzen nindutela buruan jotzen ninduten”.


Unai Romano: “Ama hil zidatela sinestarazi zidaten, buruak erre egiten zidan, oso hazita nuen, ez nuen ezer ikusten... Muturreko egoera batera bultzatu ninduten, eta eskumuturreko zainei hozka egin nien infernu hura amai zedin”.

Juan Antonio Cortes: “Biluzik nengoela, elektrodoekin batera poltsa jarri zidaten. Lasa eta Zabalari gertatutakoa niri pasatuko zitzaidala esaten zidaten”.

BI ALDIZ JAIOTZEAZ

LEIRE UGALDE:

‘HERIOTZA ORAIN EZ ZAIT HAIN IZUGARRIA IRUDITZEN, BAKEZKOAK EGIN DITUT HERIOTZAREKIN’



«NOIZ EDO NOIZ, ASPERTZEN NAIZELARIK, HILTZEKO MOLDEEZ HASTEN NAIZ PENTSATZEN. EGIA ESATERA, EZ ASPERTZEN NAIZELARIK BAKARRIK. KONTUA EZ DA HERIOTZAZ PENTSATZEA, HILTZEKO MOLDEEZ BAIZIK. OSTIRAL ARRATSALDEA DA, JENDEZ GAINEZKA DAGOEN SUPERMERKATU BATEAN NABIL, ORGARI TIRAKA, ETA HORRA FLASH-A: ZER GERTATUKO LITZATEKE EROSLE PILA HONEN ERDIAN LURRERA JAUSI ETA HEMEN BERTAN HILKO BANINTZ? SAIATU EGITEN NAIZ IMAJINATZEN ZER EGINGO LUKEEN AURREKO NESKA HORREK, ATZEALDEKO EMAKUME LODI HARK, ORAINTXE MARMELADA POTE BAT BEGIZTATZEN ETA ARGITARANTZ JASOTZEN ARI DEN GIZON BURUSOIL ANTEOJUDUN HORREK. ETA HAURREK. HAURREK NOLA ERRE-AKZIONATUKO LUKETEN. SEGURUENIK TXANTXA BAT DELA PENTSATUKO LUKETE». (ROGER WOLFE, *LA MÁQUINA DEL TIEMPO* LIBURU-DISKOTIK).



t. patxi zubizarreta
a. edorta sanz & artxibo

‘KONTATU DIDATE kolapso hura etxean edo, are gehiago, sendagilearenean gertatu izan balitzait, honezkero hila nintzela. Ozta-ozta bazen ere, Leire bizirik zegoen artean, iztaitik aortan barrena bihotzeraino heltzen eta taupadak eragiten zizkion kontrapultsazio baloiari esker, miokarditis biriko baten erruz. Birus batek urdailari erasaten diolarik, gastroenteritisa sortzen da, eta neumonia birikei erasaten dielarik, baina infekzioak bihotzari eragitean ez dago zer eginik. Hala bada, Santanderreko Marqués de Valdecilla ospitalera eramán zuten Leire, eta lur azpiko sotoan dagoen zainketa intentsiboetako unitatean egokitu. Bihotz transplantea zen aukera bakarra eta, bien bitartean, kanpotiko bihotz bat ezartzea. ‘Harrezkero ez dut ezer gogoratzen.’

‘Kontatu didate’, diosku begiak begietan, ‘sendagile batek bestelako iritzia agertu zuela’. Antza, hamabost urte lehenago, adin bertsuko emakume gazte bat, bere kabuz, berez suspertu zela ikusi zuen eta ekografian iruditu zitzaion Leireren bihotz zatiño bat ere onera etortzen hasia zela. ‘Zazpi eta erdira jokatzeari bezalakoa da. Bihar, agian, karta egokia tokatuko zaigu. Nire arreba balitz, itxaron egingo nuke’. Eta familiak itxarotea onartu.

‘KONTA DEZAKET sei egunen buruan komatik ateratzea erabaki zutela, eta arnasa-aparailua desko-



© elena odrizola

Hemen gaude zure zain.

nektatu zidatela. Eta, begiak irekierik, hamaika hodi, kable, ontzi eta ordenagailuz inguratua ikusi nuela neure burua. ‘Leire, entzuten al nauzu?’, galdegin zidan sendagileak, eta nik baietz erantzun, entzuten niola; ‘Hitz egidazu’, hark ekin, eta nik baietz, entzuten niola berriro ere, baina nire hitzak ez zitzaizkion iristen, indarrik ez, nonbait’.

**“
Kolapso hura etxean edo,
are gehiago, sendagilearenean
gertatu izan balitzait,
honezkero hila nintzen**

‘Konta dezaket gero ama, Jaime, haren gurasoak ikusi nituela, eta ama ‘Ze poza, hau poza!’ esaka hasi zela, baina nik ezin nuela haren poztasuna ulertu: esku-oinetatik ohera lotua ninduten, guztiz geldiarazia, hitz egiteko aukerarik gabe’. Sudurretik urdailera hodi bat sartua zioten, janaria bideratzeko; ahoan

arnasa hartzeko maskara bat zeukan; bularraldetik kable bat sartua zioten, bihotza barnetik inguratzen zuena; eta kanpotik hura kontrolatzeko hainbat gailu kabledun; ezker besoan tentsioa neurtzeko beste makina bat zeukan, eta orratz bat eskumuturrari josia, zunda...

‘Konta dezaket’, diosku bere begi orain urdin orain berdoztak josten dizkigun bitartean, ‘ez nuela uler-tzen zer egiten nuen ohe hartan, zer gertatzen zitzaidan, eta galdurik sentitzen nintzela, eta besteen mendean nengoela guztiz, baina ezin nuela ezer galdegin’. ZIUko box hartan Platonen leize mitikoan bezalaxe sentitzen zen Leire, isla eta itzal-argien artean. Eta egunean zeharreko hamabosna minutuko bi ikustaldietan senideak errealtatea argitzen saiatu zitzaizkion, baina berriro ere harrizko isiltasun hotz hura. ‘Oso gaizki sentitzen nintzen. Beti izan naiz oso aktiboa eta, geldotasun hartan, mendekotasun hartan, oso arraro sentitzen nintzen. Banekien guztiak egunerokotasunera, bizitzara itzultzen zirela, eta ni han geratzen nintzela, bakarrean, leizean bakarrik...’

**“
Beti izan naiz oso aktiboa
eta, geldotasun hartan,
mendekotasun hartan, oso
arraro sentitzen nintzen**

‘Konta dezaket, azkenean, nire egoera onartu egin nuela, bizirautea nahikoa ez, eta gauza txikiei errepa-



ratzen hasi nintzela, denboraz eta neurriez jabetu nahian: nor noiz etortzen zen, zein jantzirekin... Makinek bizirauten laguntzen zidaten, baina pertsonak laguntasuna, konpainia eskaintzen dute, aurrera egiteko kemena. Erizain batek esana zidan: 'Ai, enetxoa, bizi egin beharra daukazu', eta gau batez goardian egongo zela azaldu zidan: 'Gaur gauean ni egongo naiz eta, beraz, egizu lo lasai. Halakoetan oso argi ikusten nuen gupidaren eta enpatia-

bat nahikoa da txirrina jotzeko! Gainerako atzamarrak etorri ziren gero, eskua, besoa, ohean zorabiatu gabe eseri ahal izatea... Haurren prozesu berdin-berdina'. Eta noizbait ere lurpeko ZIUtik plantara igo zuten, hirugarren edo laugarren solairura eta horra hor berriro ere kalea, zerua, jendea, bizitza... 'Beti dago norbait zurekin hizketan', esaten zidaten sendagileek, baina haiek pasadizoan zihoazen eta nik egonean jarraitu beharra neukan.

iritsi naizela toki honetara'. Lehenago, hamaika hilabeteko tar-tean, hiru pertsona kuttun hil zitzaizkion: adiskide mami bat, aitona, aita bera... 'Esperientzia horrek eragin zidan zama galdua dut orain, ez daukat oroitzapen txarrik edo bidegabekeria bat jasan izanaren sensazioarik. Heriotza orain ez zait hain izugarria iruditzen, bakezkoak egin ditut heriotzarekin, eta argi dut ez duela merezi bizitza beldurrez bizitzea. Indartsuago irten naiz eta



ren arteko aldea'. Baina, horrekin guztiarekin batera, nola eskertu nituen Naiaren eta Elenaren marrazkiak! ZIU ezin dira sartu, gaixoez ez dituztela ikusten argudiatzen dute, baina Jaime egoskortu egin zen eta ikaragarri mesedegarri gertatu zitzaizkidan'. Alabaina, errealitatera arteko bidean aluzinazioak izan zituen eta ezin, artean, egiazko gauzez nahi bezala ohartu.

'Konta dezaket hobetzen hasi nintzela eta, halako batean, erizain baten laguntzaz atzamar bat mugitzeko gai izan nintzela. Eta atzamar

Garbitzaileek, aldiz, ez zuten presarik izaten eta gogoan dut, ospitaletik irten aurretioxan, erizain batekin bi orduz jardun nuela sakon hizketan.'

'**KONTATU**', dio begiak umel, itxi antzean, eta orduan ohartu zara etengabe begiak zabalik ikusi duzula Leire, eta, ustez, denbora guztian ez dituela betazalak jaitsi, eta bizitza begien kliska baten antzekoa dela sentiarazi dizute haren hitzek, arina, oharkabekoa kasik, 'neure buruari konta diezaioket zerbaitengatik gertatu zitzaidalako hori, zerbaitengatik egin behar izan dudala bide hau eta

nago denok ere uste baino askoz indartsuagoak garela, denok dakigula funtsean zer garen, nor garen eta nora irits gaitezkeen, baldin eta geure buruari sentitzen uzten badiogu. Eta ez naiz ari sinesmen erlijiosoz. Daukazu gauza bakoitza baloratzeko duzu orain'. Sendagileek adierazi zioten bat-bateko heriotzen % 20, berak izandako antzeko kolapsoaren ondorio direla, baina ez direla argitzen; sendagileek adierazi zioten, ororen buru, zortekoa izan zela larrialdia ospitalean gertatu zitzaiolako eta zorionekoa dela. 'Bi aldiz jaio zarela ospatu behar duzu,

zure jaioterrian eta, hemen, Santanderren, urriaren 6an'. Eta Leirek bigarren jaioterri honetara itzuli beharra dauka lau hilean behin, nahiz eta Naiak argi esaten dion hiri hori ez zaiola gustatzen eta ez duela hara joan nahi.

“

Bi aldiz jaio zarela ospatu behar duzu, zure jaioterrian eta, hemen, Santanderren, urriaren 6an

‘Kontatu, bihotzeko gaitza eta esperientzia kontatu zituen Jose Luis Sampedro idazleak, eta erabat identifikatzen naiz haren *Monte Sinaí* liburuarekin’. (New Yorken artatu zuen Valentin Fuster kardiologoarekin liburu bat argitaratu zuten gero, *La ciencia y la vida*).



Ruth sendagileak zer moduz zegoen galdegin zion batean, idazleak erantzun zion: ‘Wonderful, halako esperientziarik sekula bizi gabea nintzen eta liluragarria da’. Eta Leirek, itsasoa begietan, bat egiten du: ‘Nik horixe sentitzen dut’.

‘KONTATU, zaindu nindutenei gutun batean kontatu nien, gero,

oso eskerturik nengoela, ezagutu nituenei eta ez nituenei, hangoei eta hemengoei’. Eta ZIUn bizi izandakoa gogoan, hangoak gogoan, Hayao Miyazakiren *Chihiroren bidaia* filmean entzundako esaldiaz oroitu da Leire: «Bizi izan duzun ezer ez da ahanzten, nahiz eta gogoratzetik izan ez» ●



Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

KRISIALDIAREN UDAN PAPEREZKO HEGAZKINAK?

t./a. ane pedruzo

KOSTATA BAINA PIXKANAKA EGUZKIA AGERTZEN HASIA DA ETA HORREK, OPORRAK DAKARZKIGU GOGORA. HONDARTZA, MENDIA, KULTURA DESBERDINAK... AUKERAK ANITZAK DIRA ETA SEGURUENIK ASKO IZANGO DIRA DAGOENEO BIDAIREN BAT EDO BESTE ANTOLATZEN DAUDENAK... ZORITXARREZ BAINA, EZ DIRA GUTXI IZANGO ETXEAN GELDITZEA ERABAKI DUTENAK, AURTENGO UDA KRISIAREN ITZALPEAN IGAROKO BAITA. LANGABEZIAK, ERREGULAZIO ESPEDIENTEEK... GORA EGITEN DUTEN HONETAN, ETXE ASKOTAN UDAKO OPORRAK BIGARREN MAILA BATERA IGARO DIRA. GEU KALERA ATERA DA TESTIGANTZA BILA...

1) Loteria tokatuko balitzaizu, nora joango zinateke oporretan?

2) Errealitatera itzuliz, nora joango zara? Norekin?

3) Kriakiak eraginik izan al du zure aukeraketan?



RAQUEL CRUZ, 27 URTE, ADMINISTRARIA

- 1) Argentina, Bora Bora, New York... mila lekutara!!
- 2) Extremadura, Galizia eta Cadizera. Astebete emango dugu toki bakoitzean. Mutil-lagunarekin batera joango naiz. Extremadura eta Galiziara familia ikustera goaz, *por la face* jatera, alegia, kar-kar!
- 3) Bai... Diru aldetik hobeto bageunde, Cadizen denbora gehiago emango genuke eta familiarekin gutxiago egongo ginateke...



MARCELO DE LA TORRE, 59 URTE, PENTSIODUNA

- 1) Herrera, Valladolideko Canalejas de Peñafiel-era. Asko bidaiatu izan dut baina herria hautatzen dut, bertan bikain nago!
- 2) Herrera, noski! Han familia eta lagunak dauzkatz, askariak egiten ditugu, herrietako jaietara goaz... Ez dut besterik behar!
- 3) Ez pentsa... Betidanik egon da krisia eta azken hau, nik behintzat ez dut bereziki nabaritzen...



LETICIA SAENZ, 28 URTE, ERIZAIN LAGUNTZALEA

- 1) Afrikara. Kontinente osoa ezagutu nahi dut... Han gure gizarteak aspaldi ahaztu duena izugarri baloratzen dute, partekatzea zer den badakite, zintzoak dira...
- 2) Inora, lan egin beharra daukat... Halere, otsailean Mozambikera joango naiz Gobernu Kanpoko Erakunde batekin. Gainera, ahal dudana bezain pronto Atenasera joango naiz, Grezia ezagutzeko gogo baitaukat.
- 3) Ez... Nik ez dut krisia nabaritzen, lana soberan daukat! Buf!

idazleen zutabea

*EUSKAL KONDAIRETAKO
MARINELEK BEZALAXE*

t. oskar espinosa



Behin saiatu zinen. Apurtxo hori orduan ikasi zenuen. Hiru hilabetetan klaseetara joan eta gustura. Autodidakta lanetan ere ibili zinen. Egia esan, presaka eta ausartegi. Azkenik, "zeniezazkidakeen", "zintzaizkiguten", "ginderamazuke"... eta gramatika liburuetan irakurritako halakoek ikara eman zizuten.

Ikasteari utzi, etsita eta galduta, euskal kondairetan itsas gorrian lema apurtzen zuten marinelek bezalaxe. Honetan, berriz, ekaitzik eta olatu erraldoinik gabe, oinarririk gabeko itsasontzia hondoratu zitzaizun.

Ez da euskaraz hitz egitea hain gauza sofistikatu. Laster konturatu zinen koardilakoek gero eta hobeto berba egiten zutela. Azkenean, hura bakarrik geratu zen. Hura, inoiz ez zuela gaztelania ez den beste hizkuntzaz hitz egingo esaten zuen hura... hura eta zeu ere euskara ikasi barik.

Mundutik ibilita, museoak ikusi dituzu. Agustin sainduaren eskuizkribu bat, Julio Cesarren ezpata eta Cleopatren bibixiak... Antzinaldiak jakingura pizten dizu, tresna horiek guztiak egiazkoak direnentz zalantzak izan arren. Erromako Koliseoa, Atenaseko Parthenona edo Egiptoko piramideak... zenbat esklabok eta zein baldintzatan lan egingo zuten eraikuntza harrigarri horiek egiteko?... ondo dakizu pertsonaia horien guztien eta monumentu harrigarri horien garaian, antzinakoek ahozko komunikazioa lortzen zutela, oraindik Euskal Herrian bizirik dirauen soinu elkarketa antzeko baten bidez. Milaka urte euskaldunek musika hori egiten eta zeuk ez duzu etengabeko sinfonia horretan notatxo bat ere jarri!

Lagunak Plazan daude. Erdaraz hasi dira, zu hurbildutakoan. Andreak, semeak eta honen lagun gazteek askotan egiten duten bezala. Zugatik denak erdaraz! Estima liteke guztion jarrera lagunkoia, zeure buruari hain inportantea bazeneritzo, barruko ahalke hori hain gordina izango ez balitzaizu... horregatik, arbuaitzen duzun konkistatzaile sentimendu horrek tristetzen zaitu, gogoan inolako zapaldu nahirik ez duzulako, etxean atzeritarra sentitzen zarelako eta batez ere, Euskal Herria maite duzulako.

Bertsolariak daude. Ez diezu ezer ulertzen. Halere, gustatzen zaizu dibertitzeko era apal hori. Ondokoak barrezka. Baita zeu ere, konturatu zarenean, aurpegia piper bat baino serioago duzula. "Cómo me gustaría entender", pentsatu duzu. Haiekin gaizki zaude. Azokako baseritarrekin, semearen irakasleekin eta dendaro erostera hurbiltzen zaizkizun bezero euskaldunekin bezain gaizki.

Ondoko kale batean algara ederra dago. Alboetan jendea gogo handiz itxaroten. Furgoneta batetik datorren musika gero eta gertuago. Errelebu den ikurri-aurrera daraman alaitasuna. Eta pankarta handi baten atzean zenbat jende oihuka eta lasterka! Gogo txikiak ugari, gogo handi baten anai-arrebok, denok... Korrika! Korrika! Korrika!... Hori bai ulertzen duzula! Tipi-tapa zeu ere, zeure gogo txiki horrekin! Jendearen grina gelditzen ez duten semaforo gorriak eta leihoetatik txalotzen dutenei begira.

Atzean utzi duzun herrira itzultzen ari zara. Furgonetaren musika gero eta urrutiago, baita atzean darraikioten euskaltzaleen oihuak ere. Korrikaren soinuak ez dira guztiz urrutiratuko, zeure baitan ondo barneratuta baitaramatzazu. Korrikaren gogoak harrapatu zaitu. Pentsarazi dizu. Geroa ez da izango zeure betiko leloa. Ez diezu tristura eta bakardadeari zeure bizitzako atea zabalik utziko, zailtasunik gabe zeure barnean sar daitezen, arrotz eta odolgabea berriro sentiaraz zaitzaten. Euskal kondairetako marinela, lema berri eta sendo batez euskararen itsaso zabalean barrena!... Azkenik, zeuri ere euskara ikasteko ordua heldu zaizu! ●

EUSKALDUNTASUNEAN LAGUN

araba euskaraz 2009



hauspoari eraginez



MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza t. 945 23 24 48
Olagibel, 33 t. 945 25 40 84
GASTEIZ

EGUR

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
TI/Fxa: 945 465 921
TI. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
TI: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

Iturrieta

ASKALDEGIA IREKITA Sagardotegia

OSTEGUNETIK AURRERA IREKITA.
Gainontzeko egunak, enkarguz.
bertako sagardoa

<http://iturrietasagardotegia.blogspot.com/>

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) TI.: 945 445 385 - 685721593

ez galdu aukera

... euskaraz

945 22 21 53
geu aldizkaria & elkarteak | pedro asua, 2 - 3.a
01008 gasteiz www.geugasteiz.com

KREA, SORKUNTZARAKO

SORKUNTZA, HEZIKETA, HEZKUNTZA ETA AISIALDIA. ADAR HORIEK GUZTIAK BATZEKO EGITASMOA DA KREA, ARTE GARAIKIDEKO GASTEIZKO ZENTROA. PROIEKTUA 2006AN JARRI ZEN MARTXAN, VITAL KUTXAREN GIZARTE EKINTZAREN EKIMENEZ, ETA ERAIKIN BERRIA DATORREN URTEKO UDABERRIRAKO AMAITUTA EGOTEA ESPERO DA. BETOÑUKO KARMELDAR OINUTSEN KOMENTU ZAHARRAREN BIRMOLDATZE LANAK AMAITZEN DIRENEAN, ARTISTEK ETA SORTZAILEEK BEREN ADIERAZPEN GARAIKIDEAK GAUZATZEKO GUNE BERRIA IZANGO DUTE GASTEIZEN.

t. edurne begiristain a. edorta sanz & krea

Adierazpen garaikidea sustatzeko zentroa izango da Krea. Vital Kutxaren ekimenez sortua, arte eta kultura garaikidearen inguruan sortu, esperimentatu eta hausnartzeko erreferentziatzeko gune bihurtzea da Krea-ren helburu nagusia. Sorkuntzaren sektore guztiei zuzenduko zaie zentro berria: arte plastikoak, zinema eta bideoa, literatura, musika, dantza eta antzerkia, besteren artean.

Krea Karmeldar oinutsen komentuan egongo da, Betoñun, Gasteizko kanpoaldean. 16.000 metro koadroko azalera batean eraikitzen ari dira egoitza. Komentuaren eraikin neogotikoa zentroaren gune garrantzitsua izango da, hantxe egongo baitira 8 tailer artistiko, 9 egoitza, 3 entseiu-lokal dantza eta eta arte eszenikoetarako, bideo argitalpenerako bi areto, bi argazki laborategi, teknologia berrien inguruko bi tailer, musika grabatzeko bi areto, irrati estudio bat, arte eszenikoetako areto bat, mediateka bat eta balio anitzeko kaperak. Kanpoaldean, berriz, eraikin osagarria eraikiko dute. Kristalezko beso baten forma duen eraikinean espazio publikoak paratuko dituzte: informazio gunea, denda, kafetegia eta jatetxea. Roberto Ercilla eta Miguel Angel Campo arkitekto gasteiztarrek diseinatu dute gune hori. Lurrazpian, berriz, auditorioa eta erakusketa aretoak kokatuko dituzte. Lanak 2010eko udaberrirako amaituko dituzte. Vital Kutxaren ekimen esanguratsua gisa horretako lehenbizikoa izango da bai Euskal Herrian, bai inguruan ere. Izan ere, arte

diziplina guztiak gune berean batuko dituen zentro bakarrenetarikoa izango da Krea.

Ekimen bizia

Betoñuko komentua zaharberritzeko lanak ez dira amaitu baina Krea dagoeneko lanean dago.

Egitasmo bizia da. 2006 urtean Vital Kutxak kulturaren alorrean egin beharreko apustu esanguratsua aurkeztu zuenetik martxan dago Krea. Orduan hasi zen lanean etorkizunean ideien laborategia, baliabide zentroa eta topaketarako espazioa izango den gunea sustatzeko lan-taldea. Haren egiteko nagusia artistekin eta kultu-




LABORATEGIA

ran lanean ari diren kolektiboekin hartu-emanak izatea eta artisten beharren arabera programak martxan jartzea da. Artistak zaindu bai, baina herritarrak ere ez dituzte bazter batean utziko, eta haientzako programa bereziak ere prestatuko dituzte: kontzertuak eta pelikulak, besteak beste.



ob ser va zion con noemi ettin





Une honetan bost lagun ari dira lan-taldean beharrean, baina etorkizunean, Betoñuko eraikinak ateak zabaltzen dituenean, hoguei bat lagun egongo dira zeregin horretan. Egun, Araceli de la Horra ari da zuzendari lanetan, Oihana Blanco da Komunikazio arduraduna, Lorena Montejo eta Jone Gonzalez dira Ikus-entzunezko arteen eta Arte eszenikoen arduradunak, hurrenez hurren, eta Maria Arredondo administrazioan ari da lanean. Haien esku dago artista eta kultur eragileekin elkarlana sustatzea eta sortzaileek

lanerako behar dituzten lanabesak eskura jartzeara. Hala, Krea-k urtean zehar martxan jartzen dituen hainbat ekimenen kudeaketaz arduratzen dira: bekak, laguntza deialdiak, topaketak, ikastaroak eta tailerrak, eta hezkuntza programak.

Krea-ren proiektuak kulturgileen artean harrera ezin hobea izan duela nabarmendu dute lan-taldeko kideek. Eta pozik daude. Orain arte izandako harrera ikusita, ziur daude eraikina martxan jartzen denean Krea sorkuntzarako laborategi handia izango dela:

"Krea-ko eraikinean bizitza egotea nahi dugu, artistek bizitza hori ematea nahi dugu", dio Montejok. Betoñuko egoitzak sortzaileei elkartu, proiektuak prestatu eta elkarren artean zer egiten ari diren komunikatzeko aukera eman nahi diela azaldu dute lan-taldeko kideek. Artistak dira euren publiko garrantzitsuen, haiei zuzenduta egongo baita bereziki Krea. Sorkuntza aldetik Gasteiz hiri interesgarria dela eta ahalegin handia egiten ari dela uste du Montejok. "Gero eta kultur mugimendu handiagoa dago Gasteizen, proposamen interesgarriak daude, baina uste dut zabaltzeko modua ez dela oso egokia izan".

Sorkuntza arloan dagoen gabezia horri erantzuna emango dio Krea-k. Izan ere, egun ez dago toki bat gertuko sortzaileak elkartu, proiektuak prestatu, eta elkarri zertan ari diren komunikatzeko, eta Krea-k topatzeko abagune hori emango die artistei, baliabideak eskura jarrita. "Jende berriak beti izan ditu arazoak bere proiektuak aurrera eramateko, hasierak beti gogorrak izaten direlako, eta guk lehen pauso hori ematen lagunduko diegu", azaldu du Gonzalezek. Sorkuntza ikuspuntu guztietatik landuko du Krea-k, diziplina guztiak uztartuta: artista plastikoak bideo-sortzaileekin, edo musikariekin, antzerkiko jendea dantzakoarekin...". Dena nahastu eta batu egin nahi dugu", erantsi du Blancok.

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza **GASTEIZ**

El Clarete
jatetxea



unai eta patri fdz. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874

Egoitza birtuala

Egotza fisikoa izan bitartean, www.krea-red.com da Krea-ren behin-behineko bulegoa. Web horrek egitasmoaren, eta martxan dauden jardueren eta programen garapenaren berri ematen du. Webgunearen bitartez makina bat proposamen eta iradokizun jasotzen ari dira, eta horien arabera jarduerak eta ekimenak prestatzen ari dira lan-taldean. Orain arte, beken programaren bi edizio antolatu dituzte (2007an eta 2008an), eta egun 27 artista ari dira beka horietaz baliatzen. Hirugarren edizioa ere martxan da: ekainaren 1ean itxi dute beken izen-emateko epea. Bekak diru laguntzak baino askoz gehiago direla zehaztu du Blancok, artista gazteei "profesionaltasuna" lortzen laguntzen dietelako. Gainera, beka amaitzen dituztenean artisten jarraipena egiten dutela eta euren egitasmoak azalarazten laguntzen dietela jakinarazi du. "Bekadunek leku finko bat dute webgunean eta hori da euren erakuslehoia. Eta euren-helburuak lortzen dituztenean hedabideei jakinarazten diegu... Bekadunen lana bultzatzen saiatzen gara".

Heziketa bultzatzeko programak ere abian ditu Krea-k: besteak beste, bisita gidatuak abian jarri zituzten 2006. urtean eta komiki eta poesia lehiaketak antolatzen dituzte eskoletan. Aurrerantzean, gainera, lehiaketak beste arlo batzuetara zabaltzeko asmoa dute.



Eta, irailetik aurrera, Udalaren Hezkuntza Sailarekin elkarlanean hasiko dira ikastetxeetako nerabeei zuzendutako programak martxan jartzeko.

Hainbat topaketa ere abian dituzte. Horietako bat *Krea Isiltasuna* izenekoa da. Soinuaren Sorkuntza eta Hedapenari buruzko Nazioarteko I. bilera izango da *Krea Isiltasuna*, eta irailaren 5 eta 6an egingo da Gasteizen. Italia, Ingalaterra eta Frantziako artista profesional ospetsuenek parte hartuko dute topaketa horretan, Krea eta Sinkro elkarrekin antolatuta. Kontzertuak, tailerrak eta instalazioak eskainiko ditu topaketa horrek. Irailean bertan ere, *Luna Krea*-ren bigarren edizioa egingo da. Haren bitartez, irailaren 12ko gaua gazte sortzaileen lanen erakustoki bilakatuko da Gasteiz. Sareko lana ere sustatzen du Krea-k, eta besteren artean, Gauekoak-en ekimenak babestu, eta Hell Doradorekin kolaboratu egiten du.

Etorkizunean erreferente izan nahi du Krea-k, gertuko artistentzat ez ezik, baita Euskal Herri osokoentzat eta nazioartekoentzat ere. Izan ere, "Krea nazioarteko egitasmoa da", komunikazio arduradunak argi adierazten duen moduan. Hala, hezkuntza zein profesional mailan zirkuituak sortu nahi dituzte, hemengo artistek kanpora bidaiatzeko aukera izan dezaten eta kanpokoak hona etor daitezen. Gainera, dagoeneko beken programaren bitartez lortu dute Krea nazioartean ezaguna izatea. Une honetan Europako hainbat hiritan bekadunak dituzte, eta halaber, Krea Japoniako Artist in Residence Network Forum sarean dago.

Mundura irekita egotea eta nazioarteko bokazioa izatea ez da oztopo izango inguruko artistei behar bezalako arreta emateko. Arabako artistenganako konpromisoa dute Krea-n, eta horiek lehentasuna izango dute.

eguneko
menua

Euskeraz Arabo BAI

www.euskoalkartasuna.org c/ san prudencio 3 gasteiz-erdialdea

azkarprint
Imprenta / Inprimategia

Landazuri, 7 - 945 23 30 01

GASTEIZ

• INPRIMATEGIA •

DIBUtec

Papertegi teknikoak

Landazuri, 7 - 945 13 06 07

Erramun
Argazki - Estudio

Heraclio Fournier, 23
(laborategia) 945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

LA RIOJANA

on egin!!! jatetxea

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

Datu gehixeago euskararen historiarako Araban

t. / a. Pedro Uribarrena & Roberto Gonzalez de Viñaspre

Historian zehar gaztelania izan da Araban maila ofizialeko hizkuntza bakarra, xede horrekin latinari lekukoa hartu ondoren. Arrazoi horrengatik, aspaldiko denboretatik, gure lurraldean dokumentazio administratiboa gaztelaniaz idatziz izan da, baita euskara arabar gehieneguneko hizkuntza zenean. Hala ere, noiz edo noiz, artxiboetako dokumentazio historikoak garbi erakusten digu azalduetako gertaeren protagonistak euskaraz mintzatzen zirela, nahiz eta eskribauak gaztelaniaz jaso ohi zituen halakoak. Kontuan hartzeko da behialako paper horietan euskara ez dela beti 'lengua bascongada' moduan aipatzen; izan ere, ez da falta izaten 'lengua vulgar' edo 'lengua inteligible' moduko aipamenik. Aurreko mendeetan euskarak Araban zeukan erabilerari eta hedadurari dagozkion zenbait datu bildu ditugu Arabako artxibo historikoetan. Gutxi dira, baina gure hizkuntzaren geografia historikoz dakiguna zabaltzera datoz neurri txiki batean. Hona hemen:

Betoñuko eta Lukuko eliza-zentsurak (1658)

Uribarri Ganboako kontzejuaren artxiboak bost orriko dokumentu bat gordetzen du, Lukukoekin Sortesarreta mendiaren inguruan zuten auziaren gaineko zenbait eliza-zentsura dituen. Orri horietako batean Lukuko abadeak egindako ohar bat agertzen da. Horren bitartez egiaztatzen du 1658ko maiatzaren lehenean, mezatan, eliza-zentsura batzuk irakurri zituela: "ley e intine las censuras y carta monitoria desta otra parte, ganadas a pedimiento del concejo y vezinos del lugar de Vlibarri Gamboa, en la dha parroquia de Luco al tiempo del ofertorio de la Misa Mayor

en lengua vulgar e inteligible, estando la mayor parte de los vezinos y moradores del dho lugar". Bertan zeuden zenbait lekukoren izenak zehazten dira: "... siendo a ello testigos Martin Ruiz de Azua, Juan Rodriguez de Buruaga, Martin Martinez de Vitarte, vezinos del dho lugar de Luco y otros".

Dokumentu berean beste ohar bat aurkitzen da, Betoñuko presbitero eta kapilau zen Pedro de Betolazak 1658ko ekainaren 2an egindakoa: "ley las dhas cartas monitorias en lengua inteligible en la dha yglesia del dho lugar al tiempo del ofertorio". Datu hori bereziki interesgarria da, herri hori Gasteiztik hain hurbil egonik. Bai Betoñun eta bai Lukun, zentsura horiek 'lengua inteligible'-z irakurri izanak helburu garbia zeukan: inortxok ez zezan argudiatu ez zuela zentsura horien edukia ezagutzerik irakurri ziren hizkuntza ez ulertzeagatik. Ondorioz, jokaera horrek adierazten du bi herri horietan ez zirela gutxi izango euskaldun elebarrak, nahiz eta pentsatzekoa den herriarren batek edo bestek gaztelania ere ulertuko zuela neurri batean.

Jakin dakigu euskara bizirik egon dela Lukun XIX. mendearen amaiera arte. Zehazki, Louis Lucien Bonaparte printzeak 1863 urtean Londresen argitaratutako mapa ospetsuan herri hori euskal eremuaren barruan kokatua dago, gutxiengoan bada ere. Bonapartek 1862ko uztailean Gasteizen bizi zen Etchenique informatzaileari bidalitako gutun batean honakoa esaten zion Lukuko egoera linguistikoa: "Considero, por tanto, Luco, Ullibarri de Gamboa, Landa ... como localidades enteramente castellanas, ya que Vd. me dice que allí todo el mundo habla castellano. El hecho de que algunas personas de estos lugares sepan hablar el vascos no cambia mi manera de ver. En efecto, estas




eliza-zentsura

personas que saben hablar el vasco no se sirven entre ellas de esta lengua, y supongo que no lo emplean más que con vascos venidos de los caseríos o de otras localidades donde se habla el vasco". Beraz, 1862 urtean euskara hilzorian zegoen Lukun, harreman sozialerako hizkuntza izateari utzia zion eta azken euskaldunak tokiko zaharrenak beste-rik ez ziren izango.

Mendia etxearen auzia, Elosu (1669)

Arabako Artxibo Historiko Probintzialean 1669 urteko auzi bat dago, Elosuko Mendia etxearen maiorazkoaren jabetzaren gainekoa. Urte hartako apirilaren 26an Sebastian Diaz de Betolaza eskribauak, Legutioko epaitegi-koak, Valladolid hiritik iritsitako errege-prohibio baten edukia jakinarazi behar izan zion auzoko bati, eta euskaraz egin behar izan zuten: "ley y notifique la Real prouision receptoria retro escrita y le di a entender su contenido en lengua bascongada a Catalina Ortiz de Letona viuda de Juan de Gorostiça vezino del dicho lugar de Elosu".

Gauza jakina da Elosun euskarak bizirik iraun duela gaur egunera arte, nahiz eta egoera aski kritikoan ailegatu den XXI. menderaino. Gogoan izan dezagun 1973an Pedro de Yrizar ikertzaileak argitaratu emandako 'Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico' lanean zioena: "En Elosu hablan (la lengua vasca) los



'lengua inteligible'



'lengua vulgar'

padres y apenas nadie de los jóvenes lo sabe".

Momarioko errotaria, Mendozan eta Tresponden (1742)

Arabako Artxibo Historiko Probintzialeko auzi kriminal batean 1742ko urtarilaren 24ko gertaera tamalgarri baten berri ematen da. Goiz hartan 46 eta 50 urte bitarteko gizon baten gorpua agertu zen Sologorrian, Mendozako jurisdikzioan. Martin de Gamiz zirujauak ziurtatu zuenez bi zauri zeuzkan, biak ezinbestean hilgarriak: bata ezkerreko titian "con instrumento corttante quadrado" eta bestea bizkarrezur-muinean "con boca de fuego disparada con bala menuda". Biktima kanpotarra zen eta inork ez zuen ezagutzen. Handik bi egunera, eskribauak deklarazioa hartu zion Momarioko errotariari, bera izan zelako biktima aurkitu zuena: "... un hombre echado boca abajo que lo ttubo por muerto". Errota hori Zadorrako erriberan zegoen, Trespondetik gora. Errotaria Bizkaiko Igorre herrian jaioa zen eta, gaztelaniaz ez zekienez, interpretari-lanak egin behar izan zituen Mendozako herritarra zen Juan Fernandez de Gamboak: "... y mediante a ser bascongado ... nombro por yntterprete a Juan Fernandez de Gamboa vezino de estta dha villa ...".

Ondoren, eskribauak deklarazioa hartu zion errotariaren koinata alargunari. Maria de Jauregui zuen izena, eta berak ere interpreta-

ria behar izan zuen: "... mediante a ser bascongada y ... nesezitar de yntterprete que explique a la testtigo en su lengua las pregunttas y repregunttas que se devieren y manifestte a su merced en la castellana las respuesttas que diere ...". Maria de Jauregik bizitokia zuen "... alternattivamente en el lugar de Traspuenttes ... y en la rueda o molinos de Momario ... en compañía de Rafael de Usualbertto su cuñado y de Manuela de Usualbertto su hija".

Dokumentu horrek erakusten du 1742an euskaldun elebakarrak zeudela Mendozan eta Tresponden. Egia da kanpotik etorritakoa zirela, baina hori bezain egiazkoa da bertan bizi zirela eta ezinbestean harremana eduki behar zutela bertako bizilagunekin. Areago, errotariaren kasuan, baita bezeroekin ere. Gainera, egiaztatzen da Mendozako herritarren artean bazela euskaldunik, hori baita Juan Fernandez de Gamboaren kasua. Guztiarekin ere, zalantzarik gabe, euskara ordurako galbidean zegoen, Mendozako beste herritar batzuek ez zutelako ulertzen. Esaterako, Jeronimo Diaz de Sarraidek, orduko alkateak eta epaile ordinariorak, ez zekien euskaraz, dokumentuan espreski adierazten denez. Hain justu, horregatik baliatu behar izan zuten interpretari baten zerbitzua. Nolanahi ere, ez zegoen oso urrun euskara hego-mendebaldeko, Langraiz Okaraino, iristen zen garaia. Horrela bildu zuen infor-

mazioa Landazuri historialariak 1798an plazaratu zuen 'Los compendios históricos de la ciudad y villas de la M.N. y M. Leal Provincia de Álava' izeneko lan handian: "Según me aseguró Don Juan Miguel Ruiz de Lezana, Comisario del Santo Oficio, Cura y Beneficiado del dicho Lugar, que tenía la edad de 87 años, en su tiempo se hallaba el vascuence en Nanclares, del que no ha quedado otra noticia en este Pueblo que los nombres vascongados en terminos y heredades".

Eta zer gertatu zen gorpua harekin? Dokumentuak diosku ikerketak egin zirela inguruko herrietan gizon hura nor zen argitu nahian. Forondako bentaraino, Legardako ostatuan, baita Argantzunen ere, Melchoraren bentan, Langraiz Okan, Billodan eta beste leku batzuetan, baina ahalegin guztiak alferrik izan ziren. Inork ez zuen jakin ezezagun haren berri ematen. Azkenean, Mendozako San Martin elizan ehortzi zuten: "... en la fuesa que se le desttino al lado de la episttola de dha yglesia y quasi al rematte del segundo cuerpo de su bobeda zerca de los asientos y bancos que en dho lado tiene la rreferida yglesia ...". Jakina denez, garai hartan eliza barruan egoten ziren ilobiak. Geroago, 1787ko errege-zedula batek agindu zuen, osasun-arrazoia tarteko, herrietatik kanpora kanposantuak eraiki behar zirela hildakoak lurperatzeko ●



m. josean morlesin



zutabea

Lehena, 1981ean

t. erlantz urtasun antzako.
historialaria



"Arabak bagare...". Horrela dio abestiak. Noiztik? Betidanik. Noiz arte? Hori auskalo, ikusiko dugu. Bada, baina, ibilbide garratz honetan aipatu beharreko geltokirik. Eta, gaurkoz, 1981 oroitarazi nahi dizut, irakurle maitea.

1981a, bai urte ikaragarria. Izan ere, eta bakarrik orduko galerak gogora ditzagun, Manuel Irujo lizarra-tarra, Joxe Arregi zizurkildarra, Telesforo Montzon bergarra nahiz Bobby Sands hil "ziren". Bob Marley ere bai, jakina, beraz euskal, irlandar nahiz mundu osoko musikaren dolu urtea 1981 hura...

Bon, zeredozer ona ere erran behar, bertzenaz... Errate baterakotz, eta Hego Euskal Herriari dagokionez, dibortzioa baimendu zuten Madrilén. Eta hori ez da ahuntzaren gaueko eztula, ez horixe. Are gehiago, kar kar, errepublikar garaian "Donostia" deitzen zen egungo "Real Sociedad" futbol taldeak espainiar liga irabazi zuen lehendabizikotz, urtebete lehenago pairatu zuen lapurretaren konpontze bidean. Ederki oroitzen naiz, bai, Arkonada eta Satrustegi gure heroiak ziren. Bada, badakizue urte hartan Asier del Horno, Xabi Alonso edota Juan Martínez de Irujo jaio zirela?

Baina urte berean ere bertzelakorik ezagutu genuen. Adibidez, Koldo Mitxelena zenak "Lengua común y dialectos vascos" artikulua argitaratu zuen. Eta, tatxan-tatxan, lehen Araba Euskaraz ospatu egin genuen, Gasteizen.


Orduan, Araban, populazioaren %3 euskalduna omen zen, eta gehienak Aramaion bizi ei ziren. Egun, % 25 inguru, hiriburuan batez ere. Aurten, Oihane Perea eredu, eta Gasteizen amaitu zen Korrikaren ahalegina burutu ondoren, hitzordua Oionen dugu, Errioxan.

Ibilbide ederra egin du euskarak Araban 28 urte hauetan, Mendialdetik Ebroraino. Halere, adin nagusikoa dela ez diote oraindik aitortu. Zenbat urte bete beharko ote du horren erdiestekotz? Tartean, inoiz baino gehiago erabili behar izanen dugu●

geusex@emaize.com

**Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik
ala jakin-minik al duzu?**

**Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko
arlotan desberdinei buruz galde diezagukezu.**



**Anima zaitez eta bidali hona zure galderak:
geusex@emaize.com**

Emaize Sexologia Zentroko profesionalak erantzungo dizute.

**emaize sexologia zentroa. gizon eta emakumeentzako arreta
bueno monreal 1-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com**

Kaixo. 18 urte ditut eta ez naiz inoiz ginekologoarengana joan. Joan beharko nukeela uste al duzu? Beldurra ematen dit.



Komenigarria da azterketa ginekologikoa egitea noizean behin, 2 edo 3 urtetan behin, adibidez, nahiz eta harreman koitalik oraindik ez izan. Zerbitzu publikoetan aurrerapen askorekin ematen dituzte hitzorduak, beraz, zuhurra izan eta zure familia-medikuarengana jo, ginekologoarekin zita eskatzeko.

Batez ere hurrengo kasuetan gomendatzen da: bularretan kozkortexoren bat sentitzen baduzu, hilerokoak oso irregularrak badira, kantitate handikoak edo mingarriak baldin badira, zure baginan usain arraroa sumatzen baduzu, baginan isuri berezia edo etengabeko azkura baldin baduzu.

Ginekologoak galdetuko dizun lehenetariko gauza zure joanaren arrazoia izango da; ea gaixotasun edo ebakuntzaren bat izan duzun (edo zure familiakoek); bular, umetoki edo obulutegiko minbiziaz bereziki. Aldi berean, lehen hilerokoa (menarkia) noiz izan zenuen ere itaunduko dizu, zure hilekoaren zikloak erregularak diren ez,.... Harreman erotikoa izan dituzun ere batzuetan galdetzen dute, koittoa (hau da, sarketa baginala) egin baduzu egiten dituzten miaketak modu ezberdinean egiten dituztelako.

Bularrak ere miazten ditu, ea kozkortexorik sumatzen duen begiratzeko. Gero espekulua barneratzen du (baginako hormak zabaltzen dituen aparatua), barrualdea ikusi ahal izateko, hau da, baginako hormak eta umetokia. Bi leku hauen laginak hartzen ditu aztertu eta infekzioak dagoen jakiteko. Ez du minik egiten lasai baldin bazaude. Azkenik, hatz bat barneratuko du baginan (eskularruarekin, noski) eta aldi berean, sabelean presioa egingo du obulutegiak eta umetokia ikutu ahal izateko eta horrela aztertu haien tamaina, mugikortasuna eta kokapena ea egokiak diren.

Mediku guztiek bezala ginekologoak sekretu profesionala mantendu behar du, beraz ez du kontsultan gertatutako deus kontatuko.

Ez dakit prozesua ezagutzen zenuen, baina ikus dezakezunez ez da batere mingarria, eta lasai egotekotan, ezta desatsegina ere. Pertsona (kasu honetan neskei) askori lotsa ematen die jende aurrean biluztea edo haien alua hurbiletik begiratzea, baina ginekologoak ohituta daude. Beraientzat gorputzeko beste edozein zati ikustea bezala da. Joaterakoan ziurrenik merezi zuen baino beldur gehiago zeniola konturatu zara. Jadanik joan den lagun batekin hitz egiteak ere lagun diezazuke.

Badakizu, zure osasunak merezi du! ●

miren lpz de arregi lakuntza

errezeta

diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola

KARDUA ALMENDRA SALTSAN



Osagaiak

Kardu egosia	5 kg.
Brunoise erara moztutako tipula	1 kg.
Baratxuri buruak	12 unitate
Dadotan moztutako hirugiharrea	1/2 kg.
Urdaiazpiko ondua	1/4 kg.
Irina	100 g.
Oliba Olioa	3 dl.
Salda	3 l.
Arrautza egosia	6 unitate
Txikitutako almendrak	150 gr.
Esnegaina	1/2 l.
Gatza eta piperrautsa	koilarakada bat

Elaborazio prozesua:

Kazola batean olio berotu eta tipula eta baratxuria gorritu. Ondoren hirugiharrea eta urdaiazpikoa gehitu eta sueztitu (bi edo hiru minutuz), irinarekin loditu eta egosi (gutxi gorabehera 20 minutu). Aipatu denbora pasa eta gero, esnegaina eta txikitutako almendrak saltsarekin nahastu eta 10 minutuz egosi.

Egosita dagoenean, gatza eta piperrautsarekin maneatu eta azkenik kardua gehitu. 5 minutuz su moteletan eragin.

Zerbitzatzeko, arrautza egosiak txikitu eta gainetik hautsezatu ●





**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA

FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

2009-2010 ikasturterako eskaintza

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK

HEZKUNTZA ARLOA

HAUR HEZKUNTZAN GRADUA *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura egokituta)*

LEHEN HEZKUNTZAN GRADUA *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura egokituta)*

IRAKASLE IKASKETAK 2. DIPLOMATURA:

- > Haur Hezkuntza espezialitatea
- > Hezkuntza Berezia espezialitatea
- > Entzumena eta Mintzaira espezialitatea

PSIKOPEDAGOGIA LIZENTZIA *(bigarren zikloko lizentzia, on-line eta erdi presentziala):*

- > Hizkuntzen Psikopedagogia
- > Esku-hartze Psikopedagogikoa

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO ARLOA

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN GRADUA *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura homologatze bidean)*

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

HUHEZI (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea)

Dorleta auzoa z/g, 20540 Eskoriatza - GIPUZKOA

Telefonoa: 943 714157 - Faxe: 943 714032

e-maila: sarrera@huhezi.edu



2009ko UDA EKAINA-IRAILA

Gazte Klik

Argazki digital lehiaketa. Hiria, gazteen adierazpen gune.

Bekak 2009

Hautaketa prozesua bekadunak aukeratzeko.

Silencio, KREA

Soinuaren Sorkuntza eta Hedapenari buruzko ekitaldia. Irailaren 3tik 5era.

Luna KREA

Gau gasteiztarra gazte sortzaileak sustatzeko plataforma bilakatuko duen apustu berritzailea. Irailaren 11a.

Komikia eta poesia

Komikiaren eta poesiaren diziplina artistikoak sustatzea dugu helburutzat: lehiaketak, argitalpenak eta tailerrak.

KREAre egoitza

Proposamen bisualak KREAn.

KREA

EXPRESIÓN CONTEMPORÁNEA

Caja Vital  Vital Kutxa

KREA ADIERAZPEN GARAIKIDEA
SORKUNTZA ETA EGUNGO KULTURAREN
INGURUKO ZENTROA

WWW.KREAREO.COM
INFO@KREAREO.COM
TEL 945 150 147